

NAFARROAN EZIN DA ETB IKUSI, DIGITALIZAZIOAK
AGORTUTZAT EMAN BEHAR ZUEN SISTEMA
ANALOGIKOAREKIN EZ BADA, ETA ETB3 EZTA
HORRELA ERE. UPNk EUSKARA ITZALI NAHI DIE
NAFARROAKO HAURREI. > 12 GAUR8

**ETB-N,
«NAPARTHEID»**



4

**Emakume afganiarrak gehien
itotzen dituen ez da burka** 04

Bizirik irauteko bat egin 08

**Kriminalitatea behera baina
zigorrak gora AEBetan** 09

**UPN Nafarroako umeei euskara
itxali nahian** 12



9



22

**Parte hartzea, eskubideetan
sakontzeko eredua** 17

E.lkarrizketa: Angel Olan 22

Zer berri ortu ekologikoetan? 26

**In fraganti: Endika Gutierrez,
raperoa** 28



17



28



SINADURAK:

- 03 **Iñaki Soto:** «Black is beltza», argia iluntasunean
 10 **Ander Gortazar:** «Metropolis», gerra arteko istorio bat
 13 **Iñaki Altuna:** Kataluniatik Euskal Herrira
 12 **Koldo Sagasti:** Burka erantzi
 16 **Ainara Azpiazu «Axi»**
 20 **Arantxa Urbe:** Ekonomiak hezkuntza unibertsala baldintzatzen dueneko
 21 **Garazi Goia:** Erretratua
 27 **Oihane Larretxea:** Memoriak ez du preskripziorik
 31 **e-makumeak:** Itzaletik azalera: Emakume aitzindariak informatikan



HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA
SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

KULTURAREN ERKUNTZA ERKUNTZAK
GIBIZKUNTZA ERKUNTZAK

{ datorrena } Iñaki Soto

«Black is beltza», argia iluntasunean

Gure artean Fermin Muguruza maite ez duen jendea badagoela jakin badakit. Koldarkeria eta edukazio txarra hainbeste hauspotu dituen 2.0 mundu honetan, ez dakit dozena bat edo hamaika ote diren, baina horietatik batzuk ezagutzen ditut, topatu ditut hortik zehar, etorri zaizkit esatera. Maitasuna eta gorrotoa auzi pribatuak dira eta, ondorioz, jendeak nahi duena maite edo gorrota dezake, libreki, laster gure gorroto eta maitasunen menpeko bihurtzen garen arren. Pertsonaia publikoen kasuan, gainera, «harreman» horiek normalak dira, pertsona baino gehiago pertsonaia ezagutzen dugulako.

Hein batean, gorroto edo dena delako hori, arrakastari euskaldunok diogun alergiaren ispilu dela uste dut. Katalanek, ordea, orokorrean, izugarri maite dute Muguruza, eta ziur naiz beraientzat arrakasta ez dela gorrotorako faktore, baizik eta miresmenerako arrazoi bat gehiago. Beste zenbaitek kultur kritikaz janzten du sentipen hutsa dena. Musikaren ikuspegitik noizbait berea ez dela nire estilorik kuttunena esan dut («*mi rollo es el rock*»), baina hortik egi-ten duenaren kalitatea ez airtortzera alde izugarria dago. Beste zenbaitek alor politikotik jotzen dio Fermini. Onartu behar dut nik ere ez ditudala bere zenbait adierazpen ondo hartu, ideologo baino gehiago kulturaren fronte politikotik aritzen denean gogoko dudala, baina hortik politikoki deskalifikatzera edo arerio gisa planteatzera... Ditzosozko fronte zabala eraikitzeke alde aurretik jende gehiegi bazterrean uzten ari garela iruditzen zait. Baina, agian, hauek nire paranoiak besterik ez dira.

Nolanahi ere, artikulua honen zentzua ez da Muguruza-ren defentsa egitea, era batean edo bestean laguna baita. Ez dut bera errebindikatu nahi, ez soilik, baizik eta berak gauzak egiteko erakusten duen profesionaltasuna eta ikuspegia. Mediokritatearen ozeano honetan, Muguruza profesionaltasunaren, elkarlanaren, kalitatearen eta, besteak beste, kulturaren garrantzia erakusten digu. Euskaldunoi harro egoteko arrazoiak ematen dizkigu, bere obsesioak lan bihurtzen dituelako, goi mailako lan eta eragin handiko kanpaina.

50 urte bete dituenean, urtetako agenda atera eta bate-tik eta bestetik lagunak bildu ditu, baita bidelagun berriak bilatu ere. Ostegunean «Black is Beltza» proiektua

aurkeztu zuen Bilboko Alhondigan eta, ni behintzat, txunditu egin nau ekimen honen dimentsioak eta kalitateak. Alor bakoitzean bikaintasuna bermatuko duten pertsonak hautatu ditu: lehenik eta behin, Harkaitz Cano literatur arloan eta Jorge Alderete marrazkigintzan. «Black is Beltza», beste ezer baino lehen, nobela grafikoa edo komikia baita. Hortik abiatuta, erakusketa egiteko Satcha Jauregi gaztearekin aritu da elkarlanean eta proiektuaren bilakabide honetan Alhondigako arduradunak irabazi ditu, aurkezpenean onartu zutenaz. Hortik aurrerako programazioa ikaragarria da, musikaren alorrean belaunaldi oso desberdinak biltzen baititu (Ruper Ordorikatik hasi eta Belakoraino, Manu Chao ahaztu gabeko, jakina), baina baita gastronomiatik hasi eta zinema-gintzan amaitzen den programa paraleloa osatu duelako.

«Trans» aurritzia jarri dio proiektuari. Etiketa ez dut gogoko, postmodernoegia da niretzat. Baina, tira, berak honela izendatzen badu egongo da horretarako arrazoirik. Izan ere, Muguruzak nazioarteko joerak usaintzen maisua

Mediokritatearen ozeano honetan,
Fermin Muguruzak profesionaltasunaren,
elkarlanaren, kalitatearen eta kulturaren
garrantzia erakusten digu

dela erakutsi baitu bere karreraren hasieratik. Besteak beste, usaimen hori errebindikatu nahi dut, kanpora begiratzeko joera hori, han ikusitakoa hona ekarri, eraldatu eta, «gure» ukitu eta nortasunak emanda, mundura gure ikonografia berri eta egokituarekin jaurtitzeko gaitasun hori aldarrikatu nahi dut. Lana, zorroztasuna... beste baloreetako batzuk dira, estajanovismoarekin batera.

Esan bezala, ez dakit Fermin maite ez dutenak zenbat diren. Bera bezalako dozena batekin, ordea, gaudena baino hobe geundeekeela argi dut. Musika ez gustatu arren, komikiak umeen kontuak direla sinetsi arren, ingelesa moda edo inperioaren hizkuntza dela pentsatu arren, elitearen jauregiak erautsi behar direla uste izan arren... «Black is Beltza» proiektuak aitaren etxea amaren suarekin berotzeko moduko energia duela onartu beharko dute, profesionaltasuna soilik gorrotatzeko gordetzen duten horiek. •



1.- Afganiren lehen senarra akabatu egin zuten 80ko hamarkadan eta bakarrik geratu zen urtebeteko semearekin eta 40 eguneko alabarekin. Komandante batekin ezkontzera behartu zuten, gerora talibanek hil zutena. Egun josteko ikastaroak ematen dizkie beste biktima batzuei eta isilik ez geratzeko lan egiten du haiekin.
Gervasio SANCHEZ

«WOMEN. AFGANISTAN»

Afganistango emakumeek burkarik gabe daudela jasaten dute bortxarik handiena

 JENDARTEA / Xabier IZAGA GONZALEZ

Monica Bernabe eta Gervasio Sanchez kazetariak testuz eta argazkiz jaso nahi izan dute Afganistango emakumeen egia, topikoez harago eta burkaren azpian dagoena erakutsiz. Jantzi hori deserosoa izan daiteke, baina ez emakume afganiar batek jasaten duen errepresio handienaren eragilea.

Burkak ikusmena eragozten du. Janzten duen emakumearena, jakina, baina baita Mendebalde-
tik begira dagoenarena ere. Iristen zaizkigun irudiek eta azalpenek janzkera horri lotuta ikusarazten digute Afganistango emakumeen bizimodua, haien arazorik larriena burka

eraman beharra dela pentsarazten. Monica Bernabe kazetariak, ordea, Afganistanen eman duen denbora luzean ez du behin ere sumatu hango emakumeen artean burkagatiko kezkarik. Jantzi hori ezerosoa izan liteke, baina ez emakume afganiar batek jasaten duen errepresio handienaren eragilea, ezta hurrik eman ere. Monica Bernabek berak ere

eraman izan du sarritan, bere burua babestuago sentitzeko.

Joan den astean Gasteizko Artiumeko auditorioa leporaino bete zen “Mujeres/Women. Afganistan” liburuaren aurkezpenean. Bertan izan zen Monica Bernabe kazetaria, lanaren egile bietako bat. Haren testuekin batera Gervasio Sanchezek argazkiek osatzen duten liburuan ez dugu begirada

mendebaldarrak murriztu duen irudirik topatuko. Hainbat emakume afganiar aurpegi eta are besoak ere agerian dituztela erakusten dituzte, baita futbolearen edo boxeokoan dihardutela ere, eta bertatik bertara jasotako istorio ugari-
ren berri ematen dute. Eguneroko drama ikaragarriak, burkaren ondorio ez direnak.

Emakume afganiarren benetako arazoa ez baita janzkera, ezta talibanek ere, diote Bernabek eta Sanchezek. Bortxarik handiena etxean jasaten baitute, burkarik gabe daudela, hain zuzen ere. Mespretxua, jipoiak, bortxaketak, hilketak eguneroko bizimodu dituzte. Emakume afganiar-
rari emakume izate hutsagatik dagokion infernua.

Maria Maeztu Forum Feministako ordezkari Miren Ortubayk Gasteizko aurkezpenean esan zuenez, Afganistango emakumeak sistema patriarkalaren ankerkeria jasaten dutenen sinboloa dira nolabait. Hala ere, munduko beste hainbat lekutan ere indarkeria sexista ohikoa dela gogorarazi zuen Ortubayk. Urrunera gabe,

Euskal Herrian bertan. Ez Afganistangoaren edo Ciudad Juarezkoaren tamainakoa, baina bai ohikoa. Hain zuzen ere, Gasteizen egun bi lehenago hilik agertu zen Rosa Lidia ahotara ekarri eta Artiumeko ekitaldia hilketa horren salaketa ekintza ere izateko asmoa agertu zuen.

LIBURUA ETA ARGAZKI ERAKUSKETA

“Mujeres/Women. Afganistan” liburua izen bereko proiektuaren ataletako bat da. Beste atala, argazki erakusketa bat, egunotan Bartzelonan dago ikusgai, baina, besteak beste, Euskal Herrira ekartzeko asmoa dute. Proiektu hori emakume afganiarren omenez abiatu zuten, Bartzelonako Udalak finantzatuta. Hango Kultura zinegotziak «zerbait» egitea proposatu zion Gervasio Sanchez, eta argazkilari kordobarrak Monica Bernaberi proposamenaren berri jakinarazi zionean, Afganistango emakumeen egoeraz zer kon-
tatu bazutela pentsatu zuten, ez zela lan erraza izango jakinda ere. Eta asmatu zuten, ez baitzen inondik inora erraza



izan, lan luze eta mota guztietako oztopoz betea baizik.

Egileen curriculuma ezagututa, gaiaren lanketa egokia eta obraren kalitatea bermatuta zeuden. Izan ere, Monica Bernabe bartzelonarrak zortzi urte eman ditu Afganistanen kazetari. 2000. urtean joan zen hara lehen aldiz, artean talibanak agintean zirela eta, beraz, herrialdean xaria indarrean zegoela. Bertan, emakumeen aldeko lanari ekin zion eta, handik itzulita, Afganistango Giza Eskubideen aldeko Elkarte (ASD-HA) sortu zuen. Gehiagotan itzuliko zen, ordea, eta herrialde hura bizileku izango zuen luzaroan. Afganistanen finkatu den Estatu espainoleko kazetari bakarra eta munduko bakanetakoa da. Hainbat hedabiderentzat lan egin du freelance gisa.

Gervasio Sanchez eskarmen-tu handiko kazetari eta argazkilaria da, sobera ezaguna. Azken hamarraldietan munduko gatazka armatu nagusietan izan da, argazki kamera begirada kritikoaren aurrean: Hego Amerikan, Afrikan, Europan – Jugoslavia ohiko gerretan– eta

Asian. Bere lanek eman dioten bozgorailua nazioarteko agintariek munduko gatazken aurrean erakusten duten hipokrisia salatzeke baliatu izan du, baina ez du gustuko kazetari konprometitua dela entzutea. Kazetaria baita, beste barik. Kazetari petoa: «kazetaritza konpromisoa da eta».

Eta lortu zuten, lortu zuten, emakume afganiarrari egin nahi zioten omenaldia gauzatzea, “Mujeres/Women. Afghanistan”, Blume argitaletxeak kaleratutako liburua osatuz. Omenaldiek, ordea, eskuarki ez dute arazorik konpontzen, ez dute egoerarik aldarazten. Badute beren izateko arrazoia, hunkigarri eta onuragarriak izan ohi dira, baina zoritxarrez, maiz, maizegi, gertaera eta egoera larrien ondorioen eragin izaten dira.

Nolanahi ere, proiektuak baditu beste helburu batzuk, omenaldiaz harago, hala nola Afganistango emakumeen benetako bizimodua, benetako oinazea, ezagutaraztea. Eta bizimodu hori erakustez gainera, egoeraren benetako izaera



2.- Fauziak 13 urte dauzka eta boxeolaria da. Ez du ezkondu nahi, ikasten jarraitu nahiko luke. Erakunde humanitario bat arduratzen da behar duen materialaz eta garraioaz. Eta boxeatzeko duen egun bakoitzeko euro erdi bat ordaintzen dio.

3.- Futboleko jokalaria gehienak batxilergoko edo unibertsitateko ikasleak dira, klase sozial ertain edo altukoak. Kabulen emakumezkoen hamasei talde daude eta 2013an lehenengo txapelketa jokatu zen. Futbolarien senideak bakarrik sartu ahal izan ziren partidak ikustera.

Gervasio SANCHEZ

eta haren kausak azaltzea. Hartarako, Gervasio Sanchezek azaldu zuenez, beren lana burkari lotutako emakume afganiarraren «postal gisako ikuskeratik» aldendu behar zuten. Azaleko ikuskera hori baztertu, alegia.

GIZONAREN JABEGO HUTSA

Emakume haien egoera halako janzkera eraman beharra baino askoz ere gordinagoa da. Emakume afganiarra jabego hutsa da. Gizonaren jabego. Aitarena lehenbizi, senarrarena ondoren. Kontu jakina da talibanen erregimenaren menpeko Afganistanen bizi izandako errepresioa, emakumeei, bes-

teak beste, hezkuntza eta osasun zerbitzuak debekatzen zizkiena; hala ere, talibanak hedatu ez ziren inguruetan ere berdintsua zen oro har emakumeek jasaten zuten indarkeria sexista.

Talibanen agintea baino lehen, bitartean eta ondoren, emakume pobreek zein aberatsak, analfabetoek bezala ikasketak egin dituztenek ere jasaten dute gizarte hartan sakon errotutako indarkeria bera, emakumezko sendagilearen eta neskatila txiroaren arteko bazterketarik egiten ez duen basakeria. Egiturazkoa, soziala, etxekoa. Egoera soziopolitikoaren edo garaian garaiko gobernuaren arabera edo dena, ezta janzkeraren ondorio ere, bortxarik handiena etxean jasaten baitute emakumeek, lehen aipatu bezala, burkarik gabe daudenean, hain zuzen.

Menderatze horren bermetako bat, berriz, menderatzaileraren erabateko zigorgabetasuna da. Adin txikiko alaba saltzea, alegia, nahi ez duen gizonarekin ezkontzera behartzea, edo emazteari tratu txarra ematea, jazarri eta zigortu

Liburuaren egileek nabarmendu dutenez, emakume afganiarren benetako arazoa ez da janzkera, ezta talibanak ere. Bortxarik handiena etxean jasaten dute, burkarik gabe daudela

Mespretxua, jipoiak, bortxaketak, hilketak eguneroko bizimodu dituzte. Emakume afganiarrari emakume izate hutsagatik dagokion infernua salatu nahi izan dute



beharrean, jokaera arruntzat joten dute.

Liburuaren aurkezpenean Maria Cilleros proiektuaren koordinatzaile eta ASDHaren ordezkariak esan zuenez, nahiago zuketzen beren proiektua aurkeztu behar izan ez balute. Are gehiago, egileek eta berak ondo dakite, eta halaxe aitortu zuten, lan horrek ez duela emakume afganiarren egoera konponduko. Baita aldaketa hori ez dela berehala gertatuko ere, hartarako ezinbestekoa baita pentsamolde aldaketa sakona, eta horrek hezkuntza prozesu luzea behar baitu aurrez. Hala eta guztiz ere, garrantzitsua da salaketa lana ez ezik, munduak Afganistanen egiaz gertatzen dena topikoez harago ezagutzea ere.

NAZIOARTEAREN ERANTZUKIZUNA

Nazioartearen laguntza berebizikoa izan liteke aldaketa prozesu horretarako, baina ezkor azaldu ziren aukera horri dagokionez; are gehiago, nazioartearen erantzukizuna salatu zuten, tartean Estatu espainolarena berarena. Izan ere, Afganistango okupazioaren


ostean, Kabulgo Gobernuak herrialde askoren finantzazioa jaso du, erruz; gastu militarretarako, baina. Nazioarteko laguntza horrek, bestetik, ez du saihestu zenbait gerra-jauntxo gobernuan bertan izatea.

Emakumeen egoerak, aldiz, bere horretan dirau talibanen gobernuaz geroztik hamahiru urte igarota. «Urrezko aukera» galdu omen da emakume afganiarren egoera aldatzeko, haien eskubide bortxaketa bukatzeko. Egia da legeak aldatu direla, eta legedi berriak eskubide berdintasuna aitortzen duela; esate baterako, 2004tik ez dago debekatuta emakumeak eskolara joatea, ezta lan merkatura sartzea edo haientzako osasungintza ere. Alabaina, herrialdeko iparraldean neurri batean lege horiek betetzen diren arren, hegoaldean «betiko legea» dago indarrean. Hartara, neskak eskolara joatea, esate baterako, arrisku handia da. Eurentzat, jakina.

Aldatu dira legeak, baiki, baina epaileak eta poliziak ez, eta justiziak «gizonezko» pentsamoldea du; horrenbestez,

4.- Fatimak hirugarren mailako erreduarak dauzka gorputzaren %72an. Bere buruari su eman zion amaginarrebak ematen zion tratu txarra salatzen. Hilabeteko sufrimenduaren ondoren, erietxean hil zen, hiru haur txiki etxean utzita.

5.- Masumak 18 urte dauzka eta duela sei hilabete ezkondu zuten. 7 urte zituela 30 urteko ezkontutako gizon batekin lotu zuten ezkontzeko. Trukean 1.350 euro ordaindu zituen gizon hark eta bere 2 urteko alaba eman zuen Masumaren 10 urteko anaiarekin ezkontzeko. Gervasio SANCHEZ



ohikoa da, tratu txarrak salatuz gero, justiziak erasotzaileari arrazoia eman eta eraso jasan duenari errua botatzea, baldin emakumea bada.

Europako parlamentu gutxiak dituzte Kabulgo Parlamentuak adina emakume beren aulkietan. Hala ere, emakume afganiarrei ezer gutxi balio die parlamentarioen %28 izatea, haietako askok, gainontzeko emakume ugari bezala gogoz kontra ezkonaraziak, etxean tratu bertsua baitute zain. Etengabe zapaltzen dituen. Haietako baten lekukotasuna jasotzen du liburuak, Azita diputatu ohiarena, hain zuzen.

Azitarena berarena bezala, beste istorio asko bildu ditu “Mujeres/Women. Afghanistan” lan mardulak, 200 lekukotasun ikaragarri, milioika emakumeren bizitza jasanezinaren berri ematen dutenak.

INFERNUA MUNDU HONETAN

Argazkietako batzuk lazgarriak dira. Gorputz osoa bendaz estalita duen 13 urteko neskatilarena, kasu. Bi hilabetez haurdun, bere buruaz beste egiten saiatu zen, bontzo antzo, bere borondatearen kontra ezkondu ondoren etxeko bizimodua pairatu ezinik. Ez da kasu bakarra, ordea. Ohikoak dira emakumeen suizidio-ahaleginak, beren burua errez edo pozoituz. Afganistan emakumezkoen artean gizonezkoen artean baino suizidio ahalegin gehiago gertatzen diren munduko herrialde bakarra da.

Samila 12 urte zituela ezkondu zen, behartuta, bera baino lau bider zaharragoa zen gizon batekin, herrialde hartako Konstituzioak 16 urtetik behararako gazteak ezkontzea debekatu zuen arren. Han legea laguntza ekonomikoa ematen

Europako parlamentu gutxiak dituzte Kabulgo Parlamentuak adina emakume beren aulkietan. Hala ere, emakume afganiarrei ezer gutxi balio die parlamentarioen %28 izatea

Datu esanguratsua: Afganistan emakumeen artean gizonezkoen artean baino suizidio ahalegin gehiago gertatzen diren munduko herrialde bakarra da



duten herrialde ezin demokratioagoei erakusteko edergarria baino ez da, ordea.

Fauzia, emakume afganiarren ustezko patuaren aurkako borrokaren metafora, boxeolaria da. Ez luke ezkondu nahi, ikasten jarraitu ahal izateko.

Jamila, Masuma, Fatima. Emakume ikasketadunak; neska nerabeak; beren ezkontzaren egunean –kalbarioa zain dutela badakite ere– irribarrez agertzeko adorea dutenak; Afganistango betiereko gatazka armatuetako gerrajauntxoek edo talibanek hildako senarraren, ahizparen edo aitaren argazkiak bularrean estututa, irribarrea galdu dutenak... emakume izatearen errua larrutik ordainduta, bizitze hutsa oinaze itzel dutenak. Dagoeneko infernua mundu honetan utzi dutenak.

Hainbat istorio lazgarriren protagonisten benetako drama ezkutatzen duen burkak estali gabeko aurpegiak. Mendebaldeko begirada lau-soari ondo ezagutzea ardura ez zaion sufrikario mugagabea biltzen duten begirada garbiak.

6.- Zar Gul 20 urteko gaztea 5 urteko alabarekin eta 2 urteko semearekin. Bere aitak indarrez 30 urte zaharragoa den gizonezko batekin ezkondu zuen, dagoeneko lehen emazte bat bazuena. Etxetik alde egin zuen seme-alabekin eta harrera etxe batean bizi da. Dibortziatu egin nahi du.

7.- Nazaninek 35 urte dauzka eta bere ahizpa Zarinen argazkia erakusten du. Zarin 14 urte zituela hil zen bonbardaketa batean.

8.- Rokhshane 16 urte dauzka eta etxetik alde egin zuen bere lehengusu batek bortxatu egiten zuelako. Lehengusuak droga mendekotasuna zuen eta Rokhshane bera ere drogaren munduan sartu zen. Zazpi hilabeteko zigorra betetzen ari da zentzategi batean.
Gervasio SANCHEZ



Nazioartearen erantzukizuna salatu dute. Izan ere, Afganistango okupazioaren ostean, Kabulgo Gobernuak herrialde askoren finantzazioa jaso du; gastu militarretarako

Aldatu dira legeak, baina oraindik ohikoa da, tratu txarrak salatuz gero, justiziak erasotzaileari arrazoia eman eta eraso jasan duenari errua botatzea, baldin emakumea bada





 IKUSMIRA

BIZIRIK
IRAUTEKO BAT
EGIN BEHARRA

Txinak eta AEBek aste honetan lehen aldiz lortu dute klima aldaketaren inguruan ados jartzea. «Akordio historikoa» izan dela esan digute hedabideek, nahiz eta fenomenoaz aztertu duten zientzialariek beharrezkotzat jotzen dituzten gas kutsakorren isurketen murrizketetatik oso urruti geratu diren mundua gehien zikintzen duten bi herrialde erraldoiak. Gainera, Mitch McConnell senatari errepublikanoak adierazi du Obamak eta Xi Jinpingkek adostu duten egitasmoa ez dela «errealista», eta Etxe Zurira iristen den hurrengo presidentearentzat zama handia izango dela, lanpostu berriak sortzea kaltetu eta energia garestituko duelako. Alegia, AEBek ez dutela beteko orain agindutakoa. Obama eta Xi Jinping elkarrekin hizketan ari ziren bitartean, Seychelleetan (bi irudiak bertakoak dira) elkartu dira itsasoaren mailak gora egin izanak desagertzeko bidean ipini dituen estatu txikietako ordezkariak. «Errudunak zigortzeko aukerarik ez dugu», onartu du James Michel Seychelleetako presidentea. Bat egiteko eskatu du, potentzia handiek jaramon egin diezaieten.

joseangel.oria@gaur8.info



Alberto PIZZOLI | AFP

listak», eta Etxe Zurira iristen den hurrengo presidentearentzat zama handia izango dela, lanpostu berriak sortzea kaltetu eta energia garestituko duelako. Alegia, AEBek ez dutela beteko orain agindutakoa. Obama eta Xi Jinping elkarrekin hizketan ari ziren bitartean, Seychelleetan (bi irudiak bertakoak dira) elkartu dira itsasoaren mailak gora egin izanak desagertzeko bidean ipini dituen estatu txikietako ordezkariak. «Errudunak zigortzeko aukerarik ez dugu», onartu du James Michel Seychelleetako presidentea. Bat egiteko eskatu du, potentzia handiek jaramon egin diezaieten.

ESTATU BATUAK

Krimen kopuruak behera egin arren, inoiz baino betiko kartzela zigor gehiago

Kriminalitateak, denbora bitarte jakin batean eskualde edo leku batean gertatu den krimen kopuruak, %4 egin zuen behera AEBetan aurreko urtean. Epe horretan 14.196 homizidio izan ziren, gehienak su-armen bitartez egindakoak, hau da, 2012an baino %4,4 gutxiago.

FBIk eskainitako datuek garbi erakusten dute Konstituzioak armak eramatea ahalbidetzen duen herrialdean su-armak erabiltzearen aldekoak direla delitugile gehienak, homizidioen %69 horiekin egin baitziren. Baita lapurreten %40 inguru ere.

Urte osoko datuak aztertuz gero, 1,2 milioi krimen egin ziren AEBetan, eta horiek leporatuta 11 milioitik gora herritar atxilotu zituzten, kasu gehienetan legez kontrako drogekin, lapurretekin eta ibilgailua gehiegi edan ondoren gidatzearekin lotuta, FBIko ikerlarien txostenaren arabera.

HOLDERREN POZA

«Indarkeriazko kriminalitateak behera egin izanak joera historiko bat egiaztatzen du», adierazi zuen oso pozik Eric Holder Justizia idazkari beltzak agiri baten bitartez. Hilaren 4ko hauteskundeetan sekulako zigor handia jaso zuten demokraten lana goraipatu nahi izan zuen Obamaren ministroak, FBIk emandako datuek «arrakasta» esanguratsua adierazten dutela nabarmenduz.

Polizien lana txalotu zuen Holderrek, jakina, baina indar gehiago eman zien bere hitzaldian «Obamaren agindupean kriminalitatea eta espetxeratze tasa jaisteko» egindako urratsei. Gainera, Justizia idazkariak onartu zuen oraindik lan asko egin behar dela kriminalitatearen jaitziera AEBetako hiri eta komunitate gutzietara irits dadin.

Eric Holder ministro beltzak Missouri estatuko Ferguson herriko gertaerak izango zituen buruan hori esan zuenean, bertakoek oso garbi baitaukate (makina bat protesta egin dituzte kalean abuztuaz geroztik) Jus-

JENDARTEA / joseangel.oria@gaur8.info

AEBetako kriminalitateak behera egin zuen 2013an, FBI lkerketa Bulego Federalak joan den astelehenean jakinarazi eta hedabide gehienek harro-harro eginda zabaldu zuten. Aldiz, beste datu bat ezkutatu egin dute: espetxetik irteteko aukerarik ez duten presoek kopuruak marka guztiak hautsi ditu.



tizia Administrazioaren jokaera ez dela beti berdina; beltza eta pobrea izanez gero justizia arrastorik ez dela izaten.

Joan den asteazkenean, polizia batek abuztuaren tiroka hil zuen Michael Brown gaztearen gurasoak Nazio Batuen Geneva-ko egoitzara joan ziren justizia eske. Torturaren Aurkako Batzordearekin bilera egin ondoren, aitak zera esan zien kazetariari: «Justizia eskatzeko ez dago leku egokiagorik».

Browndarrek arrazoi asko dituzte AEBetako Justizia Admi-

nistrazioaren aldetik gauza handirik ez dutela jasoko jakiteko. «Nahiago nuke semea hil beharrean neroni hil banindute», esan zuen aitak, ama erabat hunkituta zegoela.

TENTSIOA FERGUSONEN

Hala ere, Darryl Parks abokatuak esan zuen Fergusonen hil zuten gaztearen gurasoek epaileen erabakiekiko konfiantzarik badutela eta indarkeriaren aurka daudela. Azken mezu hori oso garrantzitsua izan daiteke Fergusonen, aurki jakingo baita

Arizona estatuko Maricopa konderriko espetxeko presoak, uniformeak jantzita. ACLU Askatasun Zibilen Batasunak salatu izan ditu kasu eskandalagarri batzuk: Timothy Jackson, esaterako, 1996an espetxeratu zuten 159 dolarreko jaka bat lapurtzeagatik eta oraindik bertan daukate. GAUR8

epaimahaiak Darren Wilson agentea (armarik ez zuen Brown gazteari tiro egin ziona) auzipetzen duen ala ez. «Erabakia edozein izanda ere, inork ez digu Michael bueltatuko», adierazi zuen gaztearen aitak.

Jay Nixon Missouri gobernadoreak jakinarazi du Guardia Nazionala prest daukala Fergusonen istiluak berriz sortuz gero egurra emateko.

AEBetako hedabide nagusiek aipatu ere egin nahi izan ez duten txosten batek oso posizio ezerosoan ipintzen ditu Holder ministroa eta bere «poz ofiziala». Epai Proiektua izeneko gobernu kanpoko erakundeak egindako lanak dio espetxetik irteteko aukerarik ez duten presoek kopuruak marka guztiak hautsi dituela AEBetan.

Egileek 2012ko datu ofizialak erabili dituzte beren txostena egiteko. Urte hartan biziarteko kartzela zigorra jasotako 160.000 preso inguru zeuden herrialdeko kartzeletan (*lifers* esaten diete AEBetan), inoiz baino gehiago, eta horietako asko indarkeriarik gabeko delituenatik. Horietako 49.000 inguruk baldintzapeko askatasuna lortzeko aukerarik ez dute, indarrean den legediaren arabera. Kopuru horrek %22,2 egin du gora 2008az geroztik.

Betiko kartzela zigorrari dagozkion markak hautsi egin dira, nahiz eta presoek kopuruak behera egin duen: 2009an 1,62 milioi bazeuden, 2012an 1,57 milioi inguru ziren.

Ashley Nellis Epai Proiektuko ikerlariak uste du politikarien artean nagusitu den joera baten ondorio dela egungo egoera paradoxikoa (AEBetan bezala, Europako makina bat lekutan ere gertatzen da). Krimenen bat izaten den bakoitzean, «egurra!» eskatzen dute. Gero, zigorraren erreformaren bat eztabaidatzen denean, *lifers*-ak ez dira inoiz kontuan hartzen, «horiek politikoki saltzen ez dutelako. Legeileek nahitaez bidali behar dute norbait autobusaren azpira».

Kalifornian dute horrelako presoek kopururik handiena, 40.362. Hau da, AEBetako *lifers* guztien %25 inguru.



Ander Gortazar Balerdi
Arkitektoa

«Metropolis», gerra arteko istorio bat

Austrohungariar Inperioaren eta Italiaren arteko borrokak izan ziren Isonzoko batailak. Hamabi izan ziren guztira, 1915eko ekaina eta 1917ko azaroa bitartean, Lehen Mundu Gerraren baitan. Hamabi batailetako zortzigarrenean, Antonio Sant'Elia arkitekto, mugimendu futuristako kide eta abertzale sutsua buruan tiro bat jasota hil zen.

Sant'Eliaen lanak eraiki ez baziren ere, bere bisio futurista inspirazio-iturri izan zen hainbatentzat, eta horien artean dago Fritz Lang zinema zuzendari austriarra, arkitektura eskoletako zinema zikloetan sekula falta ez den «Metropolis» mitikoaren egilea. Gerra arteko urteetan estreinatua, Luis Buñuelek zioen bi film zirela «Metropolis», baten beharrean. Lehena, Thea von Harbouren gidoiak kontatzen duena; bigarrena, lehenengoarekiko bereizia, Fritz Langek arkitekturaren bidez sortu zuen metropoliaren bisioa, urtez luzez «etorkizuneko hiria» irudikatu zuena imajinario kolektiboan.


Bi mundu bereizten dira nabarmen filmean. Lurgaineko munduari, eliteak bizi diren tokiari, «art déco» arkitekturak, erreferentzia gotikoeak eta Sant'Elia bezalako futuristen lanek ematen diote forma. Babelgo dorre berria da Metropolis hiriko eraikin nagusia –paralelismoa etengabe da film osoan–, etxe orratz guztien artean altuena eta Joh Fredersen agintariaren egoitza. Fritz Langek New Yorkera egindako bidaiak ere izan zuen eragina bisio honetan, altzairuzko egitura baina harrizko fatxadak, Mies van der Rohe eta enparauek beirazko fatxadadun etxe orratzak artean sortu gabeak zituztela. Zentzu horretan, Metropolis hiria Ipar Amerikako hiriak izate-

ra iris zitezkeenaren bisioa zela esan liteke, nahiz eta garraio-azpiegituren brutalismoari erreparatzen badiogu hainbat hiri asiar garaikide datozkigun burura.

Bigarren mundua, lurrazpikoa, progresoa bermatzeko makinaren pieza hutsak diren langileen bizitokia da. Lurrazpiko mundu hau ulertzeko ezinbestekoa da Alemanian gailentzen ari zen arkitektura modernoari –Bauhaus eskola– so egitea: lerro soilak, detailerik eza eta adierazpen minimoa. Arkitektura modernoak langileriaren mundura murriztu zuen Langek, mugimendu modernoak ondorengo hamarkadetan izango zuen hegemonia aurreikusi gabe nolabait. Ordurako, Le Corbusierrek Plan Voisin aurkeztua zuen Pariserako, eta «etxe orratzak txikiegiak dira» esaldia bota zuen Lang bera txunditu zuen New Yorkera iritsi zenean.

1927an eman zuten filma lehen aldiz, eta diotenez, asko gus-tatu zitzairen alderdi nazionalsozialistako kideei. Hainbeste, non Goebbels berak Alemaniako industria zinematografikoa zuzentzeko proposamena egin omen zion ama judutarra zuen zuzendariari. Proposamenari uko egin, mailetak egin, eta, ezin zitekeen bestela izan, Ameriketara egin zuen ospa, Hitlerren zinema zuzendari ofiziala izatearen ohore ahalkegarria Leni Riefenstahlen bizkar utziz.

«Metropolis» filmak urte luzez iraun zuen «etorkizuneko hiriaren» errepresentazio gisa imajinario kolektiboan. Eta pozteko motiborik izango zuen Antonio Sant'Elia, etorkizuneko hiriaren iruditeria hegemoniko bat sortu zuen hurrengo filma «Blade Runner» izan zela esaten baita, kasualitatea ala ez, arkitekto futurista honen lanetik edan zuen beste film bat. •



Ilustrazioa: ANDER GORTAZAR BALERDI

{ asteari zeharka begira } Iñaki Altuna

Kataluniatik Euskal Herrira

Zer pentsatua ematen du Kataluniako prozesuak. Ez da kontua, halere, hango zehaztasunen inguruan eztabaidan itotzea. Xelebrea izan zen, adibidez, hemengo iruzkingileei Masek jukutria egin zuela entzutea. Bertakoak garela dirudi zenbaitetan, batzuetan CUPekoak baino CUPekogoak. Halako prozesu bat milaka kilometrora garatzen arituko balitz, orokortasunari begiratuko genioke eta sinpleki zera esango genuke: gizarte sendo bat eta lidergo politiko egoki bat dute. Bost axola bertako gorabehera eta ika-mikak. Aitor dezagun behingoz, eskema politikoak aldatzerainoko prozesua abiarazi dute Katalunian, eta horixe da Euskal Herriarentzat irakasgai garrantzitsuena. Alegia, badela ekiteko biderik. «Estatut-arekin ederki izorratu ditiztek katalan hauek» esan genuen bezalaxe, burujabetza prozesu indartsu bat egituratuz buelta eman diotela egoerari barneratu beharko genuke behingoz, oraindik ere ibilbide malkartsua izango duten arren, aldez aurretik ezer irabazia ez dagoen arren, bere horretan Euskal Herrira ekar ez daitekeen arren...

Eta halako hausnarketak hemen bertan egiten ari denari arreta eskaini beharko liokete Euskal Herrian beste egoera batera iritsi nahi dutenek. Ez dira egun asko Arnaldo Otegi berritako erabidearen gaineko irizpide sendoak eman zituela. Ez du zertan denean asmatu behar, baina aldaketa politiko eta sozialak gauzatu ahal izateko norabide argia definitu zuen: askapen prozesuak Estatuarekin akordiorik gabe egin beharko du aurrera, estrategia independentistak ardatz izan behar du eta Estatua ondorioen agenda erabiltzen ari da (blokeoa) Kataluniaren moduko prozesurik –bigarren fronte bat– irekitzea galarazteko.

Hausnarketa hauen ondotik –zenbait hedabidek arreta hor jarri dutelako eta, seguru asko, ezker abertzalean duela bost urte abiarazitako zikloak behar duen bigarren astinaldia egiteko nahikoa konbentzimendu pilatu ez dutelako oraindik– barne irakurketak hartu du garrantzia neurri batean. Ea zer-nolako autokritika egon den Otegiaren hitzetan. Ilargiari begiratu beharrean hatzari so egitea litzateke hori. Akats larria ezker abertzaleko militanten kasuan. Eztabaida nagusia ez baita barne maila-

koa. Ereindako eta sortutako aukera politiko eta sozialak askatzea dute erronka nagusi, eta horri begira egokitu beharko dituzte lehentasunak eta lan moduak.

Lerroburuak baino harago joan beharra dago, gainera. Gatazkaren ondorioen eta iturburuen artean, orain arteko banaketatik ondorioak prozesu politiko orokorrera ekartzeak zer suposatzen duen argitu beharko litzateke. Ez litzateke zuzena izango ulertzea ondorioak lehenbait lehen konpondu behar direla zioen planteamendutik independentziak konponduko duela hori dena esatera pasatzea. Ez horixe, ondorioen berehalako konponbide orokor baten faltan –adibidez, ETaren eta gobernuen arteko negoziaketak ekar zezakeena–, aurrerabide txikiena ere borrokatu behar da une oro, ekinbide politikoaren, sozialaren eta juridikoen bitartez, kartzeletan gero eta preso gutxiago egoteko, gero eta iheslari gehiago itzultzeko, torturaren errealitatea Estatuari jasangaitz egiteko... Ga-

Ondorioen berehalako konponbide orokor baten faltan –adibidez, ETaren eta gobernuen arteko negoziaketak ekar zezakeena–, aurrerabide txikiena ere borrokatu behar da une oro

tazkak halako ondorioak izatea garbiki bereizten ditu Kataluniako prozesua eta hemen egituratu beharrekoa. Ez da alde txikia. Kontuan hartu behar da, aldi berean, oinarriko eskubide horien defentsarekin bat egiteko jende asko egon daitekeela prest, ezinbestean proiektu independentistari lotu gabe.

Estrategia independentista indartzea ez da maximalismo hutsala indartzea. Justu kontrakoa ondorioen eremuan. Urrats ausartak eman daitezke helburu txikiak lortzeko asmoz. EPPK-k aste honetan egindakoak bide horretan egingo duela aurrera pentsa daiteke. Eremu politikoan, prozesuaren dekantazio independentistak ez du erdibideko akordiorik ezereztatzen. Estatuarekin halako akordiorik ez da posible, baina bai bertako indarren artean. Ipar Euskal Herrian ikusi berri dugu, eta Nafarroan ere gerta daiteke aldaketarako aukera gailentzen bada. •



ETB ezin da digitalean ikusi Nafarroan. Beste tokietan bukatutzat emandako sistema analogikoa erabili behar da horretarako. ETB3, baina, ezta horrela ere ezin daiteke ikusi.

Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS

ETB-N, «NAPARTHEID»

Nafarroan ezin da ETB digitalean ikusi UPNren oztopoak direla eta

 **JENDARTEA** / Martxelo DIAZ ARISTIZABAL

ETB bezin da Nafarroan digitalean ikusi. Gainontzeko tokietan bukatutzat eman den sistema analogikoa erabili behar da horretarako. UPNk aitzakia ugari erabili izan ditu telebista euskaraz ikusten ez uzteko, baina Nafarroan euskal hizkuntzaren normalizazioa oztopatzeko duen interes politikoak azaltzen du argi eta garbi egoera.

Analogic» dioen botoia dator telebista pizteko urrutiko kontrol batzuetan. Orokorrean, dagoneko ez da erabiltzen. Digitalizazioaren ostean «telebista analogikoa» desagertu egin baitzen. Baina Asterixen komiki bat izango balitz bezala, bada

lurralde bat non digitalizazioari aurre egin dioten eta sistema analogikoa oraindik ere bizirik dagoen: Nafarroa. Analogikora jo behar da behintzat telebista euskaraz ikusi nahi bada. Lurreko telebista digitalaren bitartez kate ugari ikus daitezke Nafarroan: Tele 5, Antena 3, La Sexta, TVE, Neox, Nova, Discovery Max, FDF, eta

abar. Baita era Navarra Televisión 1 eta Navarra Televisión 2, telebista autonomikoaren «lanak» egiten dituen kate pribatua. Baina ETB1 eta ETB2 ikusteko analogikora jo behar da, sistema zaharrera. Digitalizazioak agortutzat eman behar zuen sistemara. Eta ETB3 ikusteko modu bakarra dago: autoa edo autobusa hartu eta Gipuzkoara, Biz-

kaira edo Arabara joatea. Bestela, Nafarroako haurrek marrazki bidez euskaraz ikusteko duten aukera bakarra gurasoek (edo osaba-izebek) erosten dizkieten DVDak dira. Ez dago besterik.

Hau guztia, noski, telebistaren mandoan «Analogic» dioen botoia badugu. Izan ere, telebista berriek ez dakarte jada horrelakorik, 2014an dagoeneko erabil behar ez zen sistema zelako. VHS bideoak bezala zaborrera botatzeko teknologia zen, kalitate hobearen mesedetan. Sonyk edo Samsungek ez dute Nafarroaren berri Tokion edo Seulen. Botoi famaturik ez badugu, gauza dezente zailtzen da ETB ikusteko. Telebista atzeko kableak aldatu beharko genituzke, sintonizazio berri bat egin eta dena ongi bukatzen den ala ez itxaron... Gehiegizko lana behin eta berriz emandako kamera ezkutuko saioa edo tango lehiaketa ikusteko. Traba gehiegi. Errazagoa da «¡Mira quién baila!» ikustea!

Nafarroa, beste behin, mundu mailan lurralde arraro bat izatearen arrazoa, nola ez, herrialdeko gobernuan den alderdian, UPNn, topatzen dugu. UPNren-

tzat Nafarroak Euskal Herriko gainontzeko lurraldeekin dituen loturak etetea estrategikoa da. Eta euskararen normalizazioa oztopatzea, are estrategikoagoa. Hezkuntzan zonifikazioak ekarritako arazoak adibide garbi dira. Euskaraz aritzen den telebista modu normalean ikusten ez uztea estrategia horretan kokatzen da.

HAUR TXIKIEN MODURA

EH Bilduko parlamentari Maiorga Ramirezek UPNko sortzaile izan zen Jesus Aizpunen hitzak ekartzen ditu gogora: «*Que se vea la ETB en Navarra es como meter a la zorra en el gallinero*». Hau da, ezin da onartu nafarrek gainontzeko euskal herrialdeetan gertatzen diren berriak euskaraz jasotzea, beharbada Euskal Herria delako zerbaiten parte direla ohartuko dira eta! Herritarak haur txikiak bezala tratatzen dituzte eta UPNren baitan erabakitzen da telebistaz ikusteko zer den egokia eta zer ez.

Ramirezek nabarmentzen duenez, egoeraren arrazoa politikoa da eta UPNk aitzakiak baizik ez ditu erabili, bata bestearen atze-

Nafarroako Gobernuak EA alderdia salatu zuen Erreniegan ipinitako gailuagatik. Espainiako Gobernu Ordezkaritzak Guardia Zibila bidali zuen bertara gailua prezintatzera

tik, ETB Nafarroan modu normalizatuan ikusten ez uzteko.

Eguraldiaren mapa izan da aitzakia historiko horietako bat. ETBren iragarpenetan Tafallan euria egingo zuela aurreikustea arriskutzat jo izan da gobernuaren alderdiko bulegoetatik. «Gure inguruan zer eguraldi egingo duen jakitea ere ez dute nahi», azpimarratu du Ramirezek. Arazoa Nafarroa Euskal Herriko beste herrialdeekin batera mapa berean azaltzea da. Horrek «Nafarroako erakundeei errespetu falta» erakusten diela nabarmendu izan dute behin eta berriz UPNko agintariek. Jose Iribasek eskola liburu batean ikurriñatxo bat agertzen delako piztutako erasoaldiek oinarri bera dute.

Patxi Lopez Lakuako Gobernura heldu zenean eguraldiaren maparen aitzakia desagertu egin zen. Euskal Herriko mapa kendu egin zuten eta Nafarroarekin ba-

Epaiketa ere izan zen Iruñeko Auzitegian eta 40.000 euroko isuna jarri zieten EAko kideei. Auzitegi Gorenean helegite berri bat aurkeztu du EAk eta erantzunaren zain dira alderdikideak

tera, Errioxa, Kantabria eta inguruko erkidegoak erakusten zituen jarri zuten. Tafallan euria egiten zuen edo ez jakitea ez zen jada «arriskutsua», izan ere, Comillasen edo Haron eguzkia egiten zuela ere erakusten zen jada....

UPNk erabili izan duen beste «argudio» bat ekonomikoa izan da. Nafarroako Gobernuaren arabera, 1,5 milioi euroko kostua omen du ETB Nafarroan Lurreko telebista digitalaren bidez ikusteak. Mezu horri krisiarena lotzen badiogu –«ez dago dirurik eta premiazko gaietara lehentasuna eman behar zaie»– badugu jada euskarazko telebistaren norma-

lizazioan aurrera ez egiteko beste aitzakia bat.

Baina EA alderdiak hori ez zela egia frogatu zuen. Modu errazean gainera. Erreniegan gailu bat jarri zuen 2012ko urtarrilean ETB1 eta ETB2 lurreko telebista digitalaren bidez Iruñerrian ikustea bermatzeko. Operazioaren kostua: 12.000 euro. Maiorga Ramirezek azaldu zuenez, Nafarroa osoan ETB ikusteko beharrezkoak diren gailuek 40.000 euroko kostua izango lukete. Inolaz ere ez UPNk aipatutako 1,5 milioi euroak.

EAko kideak gogoratu duenez, lurreko telebista digitalarekin

egin zutena ez zen gauza berria izan. ETB jaio zenean ere errepi-kagailuak jartzeko diru bilketak egin ziren. Herri ekimenaren bultzadagatik ikusi zen ETB Nafarroan eta tradizio horri eustea erabaki zuten EAn. Bi astez, normaltasun osoz ikusi ahal izan zen ETB Iruñerrian. Ez zegoen botoi madarikatuari eman beharrik, ez zegoen kablerik aldatu beharrik: Tele 5, TVE, Antena 3, Navarra Televisión, ETB... kate guzti-guztiak bata bestearen atzetik telebistaren urrutiko kontrolean. Miraria!

GUARDIA ZIBILA ETA ISUNA

Horrelakoetan gertatu ohi denez, errepresioarekin topo egin zuten EAko kideek. Alor honetan eskumenik ez badu ere, Nafarroako Gobernuak gertatutako salatu zuen eta Espainiako Gobernu Ordezkaritzak Guardia Zibila bidali zuen Erreniegara.

«ZERTARAKO IKUSI NAHI DUZUE ETB NAFARROAN?»

ETB Nafarroan ikustea aldarrikatzen duenean argi eta garbi utzi nahi du Maiorga Ramirezek horrek ez duela esan nahi telebistaren egungo zuzendaritzari sostengua ematen diotenik. Izan ere, beste herrialdeetan ETBk jasotzen dituen kritika berberak egiten dira Nafarroan bertan ere: ETBieko programazioaren kalitate eskasa, EAJren mesedetan egiten den eduki eta tertulien kontrol politikoa, folklorismoa...

Kritikak kritika, baina, Nafarroan ETB3 ikustearen aldeko talde bat sortu da Facebook sare sozialean. Hau da, marrazki bizidunak euskaraz ikusi nahi dituzte haurrek Nafarroan ere. Informazio saioak ez dira hain erakargarriak. Doraemon eta Nobitaren abenturak ikustearen alde egiten dute, ez Africa Baetaren hanka sartzeak zuzenean jarraitzeko eskubidearen alde.

«Egia esan, zaila egiten zaigu askotan Bizkaiko, Gipuzkoako edo Arabako gure kideei ETB ikustearen aldeko kanpaina bat egiten ari garela azaltzea. Gauza asko ditu telebista horrek kritikatzeko, baina oinarritzko giza eskubide batez ari gara: telebista norberaren hizkuntzan ikusteko aukera izateaz. Gezurra badirudi ere, XXI. mendean gaudenean oinarritzko eskubide horiek aldarrikatu behar ditugu oraindik ere. Ez dugu babesten ETBren eredu edo zuzendaritza. Telebista euskaraz ikusteko eskubidea aldarrikatzen dugu», azaldu du Ramirezek.



Nafarroako umeez ez dute euskarazko marrazki bizidunak telebistan ikusteko aukerarik. THINKSTOCK

Epaiketa izan zen Iruñeko Auzitegian eta 40.000 euroko isuna jarri zieten EAko kideei.

Erabakiaren aurkako helegitea aurkeztu zuten eta afera Espainiako Auzitegi Nazionalera heldu zen. Madrilen isuna berretsi zuten irailean eta EAko kideek beste helegite bat aurkeztu zuten, Gorenean. Hor dago uneotan kasua, baina, Ramirezek nabarmentzen duenez, Estrasburgoko Giza Eskubideen Europako Auzitegira heltzeko prest daude. «Arazoa ez da guri isuna jarri izana telebista euskaraz ikusteko hartutako erabaki batengatik, hori bera ere larria izanagatik. Arazoa giza eskubide urraketa baten aurrean gaudela da. Izan ere, Estatu espainolak Hizkuntza Eskubideen Europako Gutuna sinatu du eta horrek betebeharrak batzuk suposatzen ditu. Egiten diren txosten guztietan Nafarroako Gobernuari ETB ikusteko eskatzen diote eta ez du inoiz gomendio hori bete», azaldu du Ramirezek.

Hizkuntza gutxiagotuak berpizteko komunikabideak beharrezkoak direla nabarmentzen du Eurokartak. Nafarroako Gobernuak ez du bermatu lurraldean ETB ikustea, baina ez ditu euskaraz aritzen diren gainontzeko komunikabide nafarrak ere babestu. Izan ere, diru laguntzak erroto kendu ditu.

NAVARRA TELEVISIÓN

Nafarroako Vascuencearen Legea murriztu dela salatu da behin baino gehiagotan, batez ere zonifikazioari dagokionez. Baina lege horrek berak ere euskarazko komunikabideak bultzatu behar direla dio. UPNk, ordea, nahiago izan du Nafarroako eta Europako legeak ez betetzea euskararen normalizaziorantz aurrerapausoak ematen uztea baino.

ETB Nafarroan ikusteak 1,5 milioi euroko kostua duela dio UPNk. Juxtu kopuru hori da Nafarroako Gobernuak Navarra Televisión telebistari ematen diena. Nafarroan ez dago telebista autonomiko publikorik. Horren ordez, kontzesioa eman zioten enpresa pribatu bati eta trukean 1,5 milioi euro ordaintzen diote. Gaztela eta Leonen erabili zuten sistema bera da. Parlamentuak,



ordea, ez du inolako kontrolik telebista kate horrengan, pribatua delako. «Eta gero ikusten dugu Yolanda Barcinak Cadreitan eskainitako mitina zuzenean eman zutela. Edo Adolfo Araiz EH Bilduren hautagaia elkarriketatzerakoan ETAREN logotipoa erakutsi zutela atzetik. Hori da diru publikoarekin ordaintzen ari garena», salatu du gogor Ramirezek.

Navarra Televisión eta pilota partidak emateko telebista eskubideak izan dira UPNren beste aitzakia bat. ETB Nafarroan ikusi ahal izateko, eskubideok Navarra Televisión katearekin partekatze-ko eskaera egin zion Nafarroako Gobernuak ETBri. Ez hanka ez bururik gabeko eskaera horrek afera korapilatzeko beste helbururik ez zuela esan daiteke.

Nafarroako autogobernua eta bertako nortasunaren defentsa argudiatu izan ditu UPNk ETB oztopatzeko. Ondoko erkidegoko telebistak ez omen du tokirik

«Navarra Directo» ETBko
saioko langileak, ETB
Nafarroan ikus dadin
galdegiteko egindako
agerraldian.
Jagoba MANTEROLA |
ARGAZKI PRESS

«Barcinaren Cadreitako mitina zuzenean ematea edo Adolfo Araizi egindako elkarriketa batean ETAREN logotipoa erakustea atzetik. Hori da diru publikoarekin ordaintzen ari garena»

Teknologiak berak ere ez du jada UPNren alde egiten. Azkenaldian Movistar konpainia 40 kanal inguru dohainik ikusteko eskaintza egiten ari da Iruñean, tartean ETB1 eta ETB2

Nafarroan. Baina horren atzetik euskalfobia dagoela argi ikus daiteke, batik bat Nafarroako eskualde ugaritan Aragon Televisión ikusten dutenean «alboko erkidegoaren eskusartzearen» aurkako inolako kexarik gabe. Antzeko zerbait esan daiteke Errioxako telebista lokalak ikusten dituzten eskualdeei buruz. Horiek ez dute arazorik sortzen. ETB, euskara eta Euskal Herriko mapa dira kezkagarriak.

Garaiotan, baina, teknologiak berak ere ez du jada UPNren alde egiten. Azkenaldian Movistar konpainia Fusión kontratua kable bidez jasotzeko kanpaina egiten ari da, Iruñeko Alde Zaharrean adibidez. Eskaintza horretan telebistako 40 kanal inguru dohainik ikusteko aukera ematen dute. Eta tartean ETB1 eta ETB2 daude beste telebista autonomiko mordo batekin batera. Hori bai, ETB3ko marrazki bizidunak kanpo gelditzen dira beste behin.

Multiplexarena da beste aitzakia. ETB1 eta ETB2 ikusteko ez dago tokirik eremu erradioelektrikoan eta Madrilen esku dago beste multiplex bat (lau kanal) eskaintzea. Baina, bien bitartean, telebista pizten dugun bakoitzean, tramankulu arraroak saltzen dituzten edo etorkizuna asmatuko duten telefono arraroz betetako kanalak topatzen ditugu. Horientzat ez dago toki arazorik.

HARREMAN POLITIKOAK, TARTEKO

Historia hau oso zaharra da dagoeneko. Izan ere, 1996ko apirilean, Javier Otano eta Jose Antonio Ardanza Nafarroa eta Lakuako lehendakari zirela, ETB Nafarroan hartzeko akordioa sinatu zuten. Orduan ez zegoen ez digitalik ez antzekorik. Politikaren gorabeherak tarteko, baina, akordioa bete gabe geratu zen azkenean. Izan ere, Lakuan eta Nafarroan gobernuan une oro zein izan den erabakigarria izan da bai bi administrazioen arteko harremanetan bai ETBren normalizazioan ere.

Patxi Lopezek harreman ona izan zuen Miguel Sanzekin eta Yolanda Barcinarekin. Iñigo Urkullurekin ere izan dira saiakerak afera konpontzeko, baina azken

orduan zapuztu egin dira. 2013ko azaroan Urkulluk bisita ofiziala egin zuen Iruñera. Barcinarekin bildu zen. «Errespetu instituzionala» nabarmendu zuen UPNren Gobernuak. Termino magikoa. Bi lehendakariak elkarrekin atera ziren Nafarroako Gobernuaren egoitzatik Baluarteaino joateko Pirinioetako Lan Komunitatearen bileran parte hartzeko. Argazki ugari atera zizkieten harreman berri bati hasiera emateko.

Klima berri horretan, ETBko zuzendari Maite Iturbek irtenbide posible bat jarri zuen mahai gainean 2013ko abenduan. Bat-batean hainbeste kezka eta gorabehera sortutako auzia konponbidean zen. Gauza ximplea zen: egungo sistema analogikoa digitalizatzeko prest zegoen ETB. Teknikoki posible zen eta ez zuen aparteko kosturik. Arazorik ez, beraz. Bada ez, arazoa berriro piztu zen. Maite Iturbek Nafarroako parlamentari onartu zenez, Iñigo Urkulluk berak guztia gelditzeko agindu zuen. «Ez ziguten beste arrazoirik eman. Urkulluk proiektua gelditzeko esan zuela. Besterik ez», dio Ramirezek. Eta horretan gelditu zen guztia. Konponbide politiko berri baten zain.

Erreniegan gailu bat jarri zuen EA alderdiak 2012ko urtarrilean ETB1 eta ETB2 lurreko telebista digitalaren bidez Iruñerrian normaltasunez ikus zedin. Bertaratu eta prezintatu egin zuen Guardia Zibilak. Iñigo URIZ | ARGAZKI PRESS

Burka erantzi

Koldo Sagasti

Iragan astean beste eraso arrazista batek hautsak harrotu zituen Gasteizen.

Oraingoan autobus gidari batek garraio publikoan sartzeari debekatu zion emakume bati, itxuraz, burka zeramalakoa. Egiaztatzeke dago benetan hala ote zen, edo beste buruzapi motaren bat ote zen langilearen kezka. Eta egiaztatzeke dago autobus konpainiek non zehazten duten bidaariak erabili beharreko janzkera. Hori gutxi balitz, gerora jakin da gidariak sinadura bilketa jarri zuela abian erabiltzaileen artean, oro har, buru zapia daramaten emakume musulmanei autobus publikoetan sartzeari debekatzeko.

Aste berean, Gasteizen, Brigitte Vasallo kazetari eta idazleak islamofobia eta generoaren inguruko ikastaroa eman zuen. Bertan salatu zuenez emakumeak dira musulmanen aurkako ezinikusia eta mesfidantza gehien pairatzen dituztenak, babesgabeenak eta erasotzeko errazena direlako. Adituaren esanetan, gorroto horren gako identitate zuri-europar mende baldar komun bat eraikitzeke beharrean dago. Europako identitate anitzak batzen dituen komuneko ezaugarriarik ezean, arrotzarekiko oposizioagatik eraikitzen dugu gurea. Eta bestea, are-
ria, musulmana da. Musulmanak ordezkatzeko dituen aurreiritziei kontrajarriz eraikitzen ditugu gure komuneko ustezko baloreak.

Aurrejuzgu horiek egiaztatzen dituzten zantzurik ezean, zenbait edozer sinesteko prest dago. Horrexegatik, hain zuzen, dauka hainbesteko oihartzuna Javier Marotoren kanpaina arrazistak. Bere adierazpen xenofoboak egiaztatzen dituzten daturik gabe ere, sinetsi nahi dituenak itsu-itsu sinesten ditue-lako. Autobuseko pasadizoak Rosa Parks ekintzaile beltzarena gogorarazi dit. Orduan garraio publikoan ezarritako salbuespen neurriak izan ziren matxinada zibila piztu zuen txinparta. Akaso heldu da garaia gure aurreiritzien burka erantzi eta autobusak hartzeko. •



Pello & KATIXA

inbiri sanaa



iRRITZIA:



Ainara
AZPIAZU
'AXPI'

PARTE HARTZEA

Herritarren eskubideetan eta gobernatzeko ereduan sakontzeko apustua

Parte hartzea herri programetan ageri den promesa bat baino askoz gehiago izan daiteke. Horretan tematua

dago bederen Arantza Ruiz de Larrinaga Gipuzkoako Foru Aldundiko Herritarren Partaide-tzako zuzendaria eta horren aldeko apustu irmoa egin du azken hiru urteotan.

Aldundiak 2010eko uztailean onartu zuen Gipuzkoako lehen-dabiziko Herritarren Partaide-tzarako Foru Araua. Asmoak pa-peraren gainean zirriborratu zituztenik apenas lau urte pasa ez badira ere, herritarren esku utzi berri dute Foru Aldundiko arduradunek izaera estrategiko-ko azpiegitura baten gaineko erabakimena. Izan ere, Zestoako herritarrek izango dute materia bizigabearen biltegia Osinbel-tzeko harrobian jartzearen inguru-ko azken hitza. Ez da Gipuzko-ako Aldundiak egiten duen lehen kontsulta, baina, aldiz, bai estrategikotzat jotako azpiegitu-ra baten gaineko estreinakoa.

IBILTZEN IKASI

Igandean, parte hartze ariketa ikusgarri batean kataluniarrek euren etorkizuna nola erabakitzen zuten bertatik bertara ikusi zuen Ruiz de Larrinagak. Bestondoan hartu gaitu, oraindik ere Bartzelonatik ekarritako ilusioa eta irakaspenak zorrotik atera gabe. Zestoako kontsulta dagoeneko abian den parte hartze prozesu baten barneko beste urrats bat izango dela nabarmendu du Herritarren Partaide-tzako zuzendariak, eta datorren urte eta legegintzaldian egingo dela aurreratu digu. Ruiz de Larrinaga pozarren da herri galdeketarekin, baita Zestoako Udala eta bertako herritarrak ere.

Erakundeen zereginak eta proiektuak erabakitzeko tenorean herritarrek eragiteko gaitasuna izatea sustatu nahi izan du Arantza Ruiz de Larrinagak zuzentzen duen zuzendaritzak. Eta ez dira gutxi izan ibilbide horretan ematea egokitu zaizkion urratsak. Foru Araua onartu eta urtebetera, 2011n, hartu zuen kargua. Gogoan duen moduan,

 **POLITIKA** / oihana.llorente@gaur8.info

Erakundeen zereginetan eta proiektuak erabakitzeko tenorean herritarrek eragiteko gaitasuna izatea sustatu nahi du parte hartzeak. Gipuzkoako Foru Aldundia horretan saiatu da legegintzaldi osoan eta orain, Zestoan, herritarren esku utzi du izaera estrategikoa duen azpiegitura baten gaineko erabakimena.

arauak gauzak egiteko aukera eskaintzen zien arren, «dena egiteke» zegoen. Bertigorik gabe igerilekura salto egin eta igeri egiten ikasi dute, erakundearen barneko uretan, baina baita, noski, herritarrekin batera partekatutako itsasoan ere.

Ordura arteko herritarren partaidetzarako bulegoa itxi eta aahaldun nagusiaren kabinetear-

ren barruan zeharkako izaera duen zuzendaritza osatu zuten, parte hartzeari erakundearen organigraman balio erantsia eskainiz. Eta, egin nahi zutenaren gainean eztabaidatzean baino, egitean jarri dute arreta. «Parte hartzearen kultura zabaldu asmoz, gipuzkoarrentzat parte hartzeko aukerak eta esparruak sortzen jarri digu indarra, eta

proiektu esanguratsuenetan zentratzeko apustua egin dugu», laburbildu digu hitz gutxitan.

Parte hartzearen bidea ibiltzen hasi orduko, Gipuzkoako udalek eta Aldundiak eskutik hartuta aritzeko topalekuaren beharra sentitu zuten. «Parte hartzearen arloa nahiko berria zen orduan, ez zegoen apenas ez teknikari espezializaturik ez egiturarik. Hortaz, bidea elkarrekin ibiltzeko helburuz osatu genuen Herritarrekin Sarea», ekarri du gogora Ruiz de Larrinagak. Aldundiaren eta 77 udaletako hautetsi eta teknikarien arteko lankidetzari esker osatu zuten herritarren partaidetza sakondu eta sustatu nahi zuen sarea. «Trebakuntza elkarrekin egin dugu, eta beharrezkoa genuen materiala ere elkarrekin ekoitzi dugu. Finean, trebatzeko eta aritzeko espazio kolektibo bat osatu dugu», dio. Sarearen baitan herriaren taimainaren araberrako lantaldeak

Gipuzkoako Foru Aldundia herriz herri ibili da herritarren iritzia biltzen. Irudian, Asteasura bertaratu ziren eguna.
GAUR8



«Parte hartzearen arloa nahiko berria zen orduan, ez zegoen apenas ez teknikari espezializaturik ez egiturarik. Hortaz, bidea elkarrekin ibiltzeko helburuz osatu genuen Herritarrekin Sarea»

daude, ezaugarri antzekoak dituzten herriek elkarrengandik ikas dezaten.

2012an martxan jarri zenetik bortzehundik gora partaidetza prozesu jarri dituzte abian. Gehienak herri mailan, baina ez dira gutxi izan Aldundiak berak martxan ipinitakoak. Amaitzearen den garraio publikoaren gainekoa da horietako bat. Mimos di-seinatutakoa izan da, eta, Ruiz de Larrinagak nabarmendu bezala, herritarren parte hartzea «lehen segundotik» hartu da aintzat. «Askotan politika bat definitu, txosten bat egin eta horren gainean eskatzen ditugu ekarpenak. Abiapuntua erakundean dago eta herritarren eragiteko gaitasuna txikiagoa da horrela. Autobus zerbitzua zehazterako orduan, herritarrekin egon gara lehendabizi, haiek egin dute lehen ebaluazioa, eta, jarraian, horretan oinarrituta egin dute teknikariek aurreproiektua», zehaztu digu. Aurreproiektua eskuetan bigarren itzuli bat egin dute eskualdeetara, eta, bertan ere, teknikoekin hartu-eman zuzenean, aldaketak egiteko parada izan dute berriz herritarrek. Orainxe, urtebete inguruko prozesu baten ostean, emaitzak aurkezten ari dira eskualdez eskualde.

INBERTSIOA HANDITZEKO PREST

Ilusioz azaltzen ditu Ruiz de Larrinagak proiektu honen gora-beherak. Bertan parte hartu duten 4.500 herritarren iritzia kontuan hartzeko, garraio publikoan inbertitzea aurreikusita zuten dirua dezente handitu behar izan dutela ere gaineratu du. «Herritarrek izan duten eragiteko gaitasuna oso handia izan da. Hasteko, ez zegoen eztabaida baldintzatuko zuen aurreproiekturik, eta dirua ez da muga izan. Partaidetza prozesua abiatzerakoan ziur geunden seguruenera inbertsio handiagoa exijituko zitzaigula, eta prest ginen horretarako», dio harro.

Aurrekontu parte hartzaileak ere izan dira Gipuzkoaren marka, 25 herrik baino gehiagok jarri izan dute-eta urteotan partaidetza mekanismoren bat abian urteko zenbakiak borobiltzeko ariketa horretan. Herrial-

«Autobus zerbitzua zehazterako orduan, herritarrekin egon gara lehendabizi, haiek egin dute lehen ebaluazioa, eta, jarraian, horretan oinarrituta egin dute teknikariek aurreproiektua»



Arantza Ruiz de Larrinaga. Andoni CANELLADA | ARGAZKI PRESS

UME ZEIN HELDU, ERAIKIN BATEN GEROA ERABAKITZEN SEGURAN

1982. urteaz geroztik, postetxea eta komun publikoak barne hartzen dituen Errebote eraikina dago Segurako herriko plazaren aldamenean. Erabilpen eskasagatik itxita daude komunak, eta jardunerako baldintza egokiak ez zirelako lekuz aldatu dute postaria bera ere. Dagozkion funtzioak ez ditu betetzen, beraz, eraikinak. Gainera, eraikinaren itxura bera ere ez da segurarren gustukoa. «Ahoz aho eraikin kritikatu izan da oso, estetikoki ez baita txukuna», azaldu du Eluska Gerriko alkateak.

Bolo-bolo zebilen iritziari zifra ipini eta eraikinaren geroa modu kolektiboan erabakitzeko parte hartze prozesua martxan jartzea deliberatu zuen Udalak. Herriko plazako erabiltzaile dinamikoan umek izaki, haiei ere hitza eta erabakia ematea otu zitzaion. Eskolan zein herrian egindako informazio prozesu baten ostean, maiatzaren 18an hautestontziak ipini eta 6 urtetik gorako herritarrek izan zuten bozkatzeko aukera. 1.5000 biztanle inguru ditu Segurak eta horietatik 519k eman zuten boza. Herritarren %92k eraikina botatzeari eman zioten babesa, 36 segurarrek egin zuten eraikina txukuntzearen alde eta hiruk zuriz bozkatu zuten.

Pozarren dago Gerriko bai prozesuarekin bai emaitzekin, bereziki hiru boto zuri horiek: «Alde bateko ala besteko iritzia izan gabe, parte hartzea baloratu dute». Umek bozkatzekoan zuten ilusioa ere gogora ekarri du. Alkatearen ustez, «parte

hartu eta bozkatzeko ohitura txertatzen lagundu dugu, eta, noski, eurak aintzat hartu ditugu».

Prozesuan zehar goizez zein arratsalde bilerak antolatu zituzten, bai euskaraz bai gaztelaraz ere. Eta datu kualitatiboez harago, eraikinak eragiten duen jarrera ezagutzeko, parkean, merkatuan ala zahar egoitzan iritziak biltzen egon dira. Herri kaskoko eraikina izanik, Errebotearen

gaineko erabakiak Lakuako Gobernuak hartzen ditu, eta, hala, baimendutako esku hartzeen artean, erreforma eta birgaitzea baino ez dira agertzen. Udalak, orain, herri kontsultako emaitzak helarazi eta aukera horien artean eraustea bera ere jasotzea aldarrikatu du. Erantzunaren zain dira oraindik, baina, azkenean, «beti herritarren ahotan ibili den gai baten irtenbidea bidean jarri» dutelakoan da Gerriko.



Hiru herritarretatik batek parte hartu zuen pasa den maiatzeko Segurako galdeketa. GAUR8



Igeldon, joan den azaroko herri galdeketa-
ren emaitzak ospatzen. Gorka RUBIO | ARGAZKI PRESS

garrantzitsuena dela defendatu du, eta, beraz, egoki deritzo aurrekontua prestatzeko lanetan herritarren parte hartzea sustatzea. «Estrategikoak eta garrantzitsuak diren gaiak jarri nahi ditugu herritarren eskura», dio ziurtasunez.

ERAKUNDEAN, IRAULTZA

Aurrekontu parte hartzaileek erakunde barnean «iraultza» eragin dutelakoan dago zuzendaria: «Logika zeharo aldatu da. Lehen Aldundiak erabakitzen zuen zer eta nola gastatu. Orain, aldiz, herritarrek eurek erabakitzen dute 500.000 euro horiek zertan inbertitu eta Aldundiak diru hori bai ala bai gorde eta euren erabakia errespetatu behar du».

Parte hartzearen kultura hedatzen ari dela ziur da. Martxan ipini diren partaidetza prozesuen kopuruagatik bakarrik asko eta asko dira haietan parte hartu duten gipuzkoarrak. «Hondakinen kudeaketaren inguruan hogeitaz herritan egin diren ariketetan 18.000 biztanlek hartu dute parte, beste 4.500 lagunek garraio publikoa diseinatu dute, eta, une honetan, 80 prozesu baino gehiago daude martxan», laburbildu du.

Zenbakiak begiratu baino, aldiz, prozesuaren nolakotasunei erreparatzeko gomendioa ere egin digu. «Taldeak anitzak badira, adin, zonalde edo sexu desberdinetakoak biltzeko balio badute, oso interesgarriak dira», dio sarri ahaztutako alde kualitatiboa nabarmendu guran.

Ruiz de Larrinagarentzat garrantzitsuena prozesuak irekiak izatea da, nahi duen orok ateak zabal-zabalik aurkitzea, alegia. «Lehen aurrez hautatutako herritarrek hartzen zuten parte bakarrik, eta hori oso elitista da. Parte hartzea sustatzen saiatzen gara gu, eta herritarrek benetan eragin dezaten nahi dugu. Horretarako prozesuaren une bakoitza zaintzen ahalegintzen gara», dio.

Zuzendariaren arabera, gainera, eragitea da errepikatzeko gako. «Prozesuaren emaitza itzuli eta jendearen iritzia kontuan hartzen dugula ikusten dutenean, eskaintako denbora eta ahaleginak zerbaitetarako balio izan duela ikusten dute. Gustura geratuz gero, errazago hurbildu dira hurrengo ariketara», gaineratu du.

Asko dira ia lau urteotan aurrera eramandako parte hartze prozesuak; bat aukeratzekotan, baina, orain urtebete Igeldon egin zen herri galdeketa hautatuko luke. «Oso prozesu interesgarria izan zen, herri galdeketa prozesu oso bati eman baitzion amaiera. Prozesurik gabeko galdeketa, eraldaketa ikuspegi batetik behintzat, ez du-eta zentzurik. Diseinua ere, ederra izan zen. Hasieratik amaierara arte bertako Herri Kontseiluarekin adostu genuen-eta», zehaztu du.

Kontsulta egunean Igeldora bertaratu zen Ruiz de Larrinaga eta ez du ahortzi bertan senti-

Aurrekontu parte hartzaileak ere izan dira Gipuzkoaren marka, 25 herrik baino gehiagok jarri dute-eta partaidetza mekanismoren bat abian urteko zenbakiak borobiltzeko ariketan

«Taldeak anitzak badira, adin, zonalde edo sexu desberdinetakoak biltzeko balio badute, oso interesgarriak dira», dio Ruiz de Larrinagak sarri ahaztutako alde kualitatiboa nabarmendu guran

PORTO ALEGRE ETA KERALAN IKASITAKOA ALTZOAN

Azken bi hamarkadotan munduko beste zenbait herrialdetan ere herritarren partaidetzarako tarteak ireki diren arren, 1989. urtea eta Brasil dira partaidetzaren erreferente nagusiak. 1988ko hauteskundeetan PT Brasilgo Langileen Alderdiak 36 udalerritan hauteskundeak irabazi ondoren, ireki ziren aurrekontuak egiteko partaidetza prozesuak. Herritar orori irekitako prozesuak izatez gain, hiru elementu berritzaile zituen egitasmoak: hartutako erabakiak lotesleak ziren, lan esparru guztiak osotasunean jorratzen ziren, eta ikuspegi eraldatzaile batek gidatzen zuen prozedura. Hiru ezaugarriok desberdin egin zuten Porto Alegren abiatutako prozesu hura.

Esperientzi hori oinarri diseinatu dituzte Gipuzkoako aurrekontu parte hartzaileak, baina euren trebakuntzan Indiara ere joan ziren pasaden udaberrian, Kerala zehazki. Orain dela hamazortzi urte abiatu zuten Indiako estatu horretan deszentralizazioa, eta parte hartzearen mundu mailako eredu bihurtu da geroztik. Erakundeek jendarte zibilarekin duten lankidetzat estua eta trebakuntza dira bertako ereduaren oinarri nagusiak. Gipuzkoarrek Marta Harnecker aditu txiletarra lagun izan zuten Kerala bidaian, eta, hain zuzen, esperientzia hari buruzko liburua prestatzen dabil orain.

tzen zen ilusioa. «Itziarren ere berdina sentitu nuen ondoren. Badira Gipuzkoan urte askoan egoki kudeatu ez eta frustrazio handia eragin duten hainbat gai. Hura ere sumatzen zen Igeldon eta behingoagatik entzunak sentitu zirela uste dut. Haien erabakiak, gainera, erabat baldintzatu zuen Aldundiaren ondorengo jarrrera», ekarri du gogora.

Parte hartzearen oinarri-oinarrian herritarrek duten eskubidea dago Ruiz de Larrinagaren begietara. Jakin badaki herritarren nahiak entzunez eta modu deszentralizatuan gobernatuta, erabakiak eraginkorragoak direla. Zin egin digu, baina, ikuspegi funtzionala ez dela bere politikan gidari. «Noski, gobernatu ere hobeto gobernatzen da horrela, baina ikuspegi motza litzateke hori. Demokrazia demokratizatzea da gure helburua», gaineratu du.

Ustelkeriak eta krisiak eztanda egin duten garaiotan, parte hartzea modu kosmetikoan erabiltzen dela ere ohartuta dago. Hala jokatzeko dutenek, baina, parte hartzea diskurtsoan besterik ez dutela erabiltzen deritzo Herritarren Partaidetzako zuzendariak.

«NORK DIO ERRAZA IZANGO DELA?»

Ez da erraza Gipuzkoako Foru Aldundia bezalako erakunde bat moldatu eta urteetako inertziak aldatzea. «Ez herritarrak, ez teknikariak, ezta ordezkari politikoak ere ez gaude horretarako prestaketa, baina nork esan zuen erraza izango zela?», itaundu du barrez. Borondate politiko argiak edozer egiten du posible. Hala deritzo bederen Ruiz de Larrinagak, eta poliki-poliki trebatzen eta ikasten joan direla nabarmendu du. «Modu planifikatuagoan aritzen gara orain, metodologiari garrantzia emanez. Praktikarekin asko ikasi dugu», dio segurtasunez.

Erakunde barruan ere aldaketa franko egin dituzte, departamentu orotan partaidetza aintzat hartua izan dadin. Laster, gainera, parte hartzerako lantaldea osatuko dute. «Eskerrak igerilekura salto egin eta igeri egiten hasi ginela. Izan ere, baldintzak eduki arte itxaron izan bagenu, legeintzaldia agurtuko genuke deus egin gabe», dio ironiaz.



Arantxa Urbe

Hezitzailea eta Hik Hasi-ko kidea

Ekonomiak hezkuntza unibertsala baldintzatzen duenekoa

Aurrekoan genion hezkuntza funtsezko giza eskubidea eta pertsonon eta jendartearen garapenerako tresna erabakigarria dela. Horregatik, Nazio Batuen Milurtekoaren Garapeneko Helburretan bigarrena da Lehen Hezkuntza unibertsala lortzea, funtsezkoa baita haurtzaroak duen pobrezia mehatxu zirkulua gainditzeko.

Begira diezaiozun, ordea, munduari: 57 milioi haur ez dira eskolara joaten, eta beste hainbestek hezkuntza ez jarraitua edo eskasa jasotzen dute. Eskolara joaten ez diren haurren %42 gatazkak jasaten dituzten herrialde txiroetan bizi dira. Garapenean diren herrialdeetan 100 haurretik 87k soilik lortzen du Lehen Hezkuntza gainditzea. Eskolatzeko kopuru baxuena Saharaz hegoaldeko Afrikan dago; eskola adinean diren haurren %65 soilik joaten dira eskolara.

Bigarren Hezkuntzan, bost nerabee-tatik bat ez da eskolara joaten. Kopuru baxuena, Afrika mendebaldean eta ekialdean dago: han, mutilen %24 eta nesken %22 daude matrikulatuta. Bigarren Hezkuntza erabakigarria da nerabeen prestakuntzarako, garapenerako eta babeserako.

Dakarren (Senegal) Hezkuntza Mundu Foroa egin zuten 2000. urtean. "Hezkuntza Denentzat: gure konpromiso komunak betetzea" ekintza markoa onartu zuten 160 herrialdetik gora: helburua, 2015erako gehienez, haur, gazte eta heldu guztien hezkuntza beharrak asetzea.

Helburua lortzeko 2002tik hezkuntzari emandako laguntza etengabe handitzen joan bazen ere, orain joera horrek kontrako bidea darama: 2010 eta 2011 artean hezkuntzari eskainitako dirua %7 gutxitu zen. Oinarritzko Hezkuntzaren hamar laguntzaile garrantzitsuetik seik laguntzak murriztu egin zituzten: Kanada, Ameriketako Estatu Batuak, Frantzia, Japonia, Norvegia eta Herbehereak. Haatik, Alemaniak, Australiak, Suediak eta Erresuma Batuak laguntzak handitu egin dituzte. Azken hau bilakatu da emaila nagusi, Ameriketako Estatu Batuen lekuan.

Saharaz hegoaldeko Afrikan bizi da munduko haur eskolatu gabeen erdia

baino gehiago; eremu horretara zuzendutako laguntza, baina, %7 gutxitu zen. Era berean, Nigerian dago eskolatu gabeko haur kopuru handiena. Hala ere, ez dago laguntzen hamar hartzaile nagusien artean, eta jaso zuena heren bat gutxitu zen.

Azken ikerketen arabera, kalitate eskaseko hezkuntza uste baino analfabetismo arrasto larriagoa uzten ari da: lau gaztetatik bat -175 milioi nerabe- ez da gai esaldi erraz bat irakurtzeko; 250 milioi haurrek ez dakite ongi irakurtzen, idazten ezta kontatzen ere. Gaurko joerak jarraituko balu, 2072ra arte ezingo da gainditu garapen bidean diren herrialdeetako nerabe txiroenen analfabetismoa. Gainera, aberatsagoak diren herrialdeetako hezkuntza sistemek porrot egiten dute kopuru aldetik esanguratsuak diren herri gutxituetan. Munduan eskolatu-tako haurren kopuruak gora egin badu ere, aurrerapen eskasak egin dira Lehen Hezkuntzako azken mailara iritsi aurretik eskola uzten duten haurren zenbatekoa gutxitzeko.

Irailaren 8a da Alfabetizazioaren Nazioarteko Eguna. Aurtengo lema, "Alfa-

betizazioa eta garapen jasangarria" izan zen. «Alfabetizazioak bizitza aldatzen du, eta bizitza salbatzera ere irits daiteke», aldarrikatu zuten. Alfabetizazioaren boterea azpimarratu zuten pertsonak beren hazkunde ekonomikoa, garapen soziala eta integrazioa ahalbidetuko duten aukerak hautatzeko. Era berean, bizitza osorako ikaskuntzaren oinarria da, jendarte jasangarri, eman-kor eta baketsuen sorreran berebiziko papera jokatzeko.

Eta non gaude emakumeak? Munduan dauden 781 milioi heldu alfabetatu gabetik bi heren gara. Kopuru hori ez da hobetu 1990etik. Bestalde, "Munduan Hezkuntza Denentzat" dokumentuaren jarraipenerako txostenaren arabera, emakume guztiek Lehen Hezkuntza jasoko balute, haur-heriotza seiren bat eta amen heriotza bi heren gutxituko lirateke. Saharaz hegoaldeko Afrikan eta Asiatik hegoaldean eta mendebaldean haur-ekontzak % 14 gutxituko lirateke, eta % 64 Bigarren Hezkuntza osatu ahal izango balute.

Imajinatzen duzu nolakoa litzatekeen mundua neska-mutil guztiak eskolara joan eta oinarritzko ikasketak amaitu ahal balituzkete... •



Haur siriarrek errefuxiatu eremu batean inprobisatutako eskola batean.

Aris MESSINIS | AFP

{ koaderno } **Garazi Goia**

Erretratua

Hego Korean izan berri naiz. Duela lau urte egindako bidaiako lehenengo aldiak izan zuen nobedade eta ezezagunaren shocka gaindituta, eguneroko beste detaile batzuetan erreparatu ahal izan dut. 25 milioi biztanleko metropolia apartamentu ñimi-ñoiez betetako etxe orratzen presentzia antiestetikoak menderatzen du. 24 ordutan itzaltzen ez diren neonezko argiek inoiz lokartzen ez den hiria apaintzen dute. Inoiz ikusi ditudan trafiko ilara luzeenetan, derrigorrez pazientzia izugarria izan behar duen jendea dabil, etxetik lanera, lanetik etxera. Lan egunetan, batez beste lau ordu kotxean pasatzea ohikoa dela esan digu taxi gidariak. Hiru egunetan alde batetik bestera eraman gaituen gizona aspertuko zen gure egonarri gutxiko aipuekin, nola liteke posible egunero hainbeste denbora horrela pasatzea, zein izango dira baten burutik pasatzen diren pentsamenduak itxaronaldi luze hauetan. Telebista bat daukate kotxe gehienetan, geldiune amaigabeetan entretenitzeko. Koreako telebista publikora egin dugun bisitan jakin dugu trafikoari buruzko informazio ematen duen aplikazio bat dela kotxeetako telebistetan gehien ikusten den edukia. Pazientzia oraindik gehiago frogan jartzeko.

Aurrerapena, anbizioa eta lan on bat edukitzea gazteen DNAn daude, lan etikaren ezaugarriek gureekin talka egiten dute hainbeste arlotan. Ordu luzeak eta konpromisoa beharrezkoak dira, baina inork ez du hori zalan-tzan jartzen, horrela izan behar da. Haurrak dituzten gurasoek nola egiten duten galdetu diot bertan ezagutu dudana bati. Zaintzaileak dituzte, astean zehar ez dago guraso-haurren artean interakzio gehiegirik, esan dit. Haur batzuek eskolan hamabi ordutik gora ematen dituzte.

Multinazional baten campusean egon naiz. 15.000 pertsona baino gehiago jasotzen ditu egunero barruti itxi batek, herri baten azpiegitura eta antzeko dinamika nabaritu ditut hasieratik. Protokolo zorrotzak jarraituz, langileak ilaran daude telefonoetako argazki kamerak pegatina batekin estaltzeko. Seguritate neurriak soberakoak dira. Esan digute negozio sail ezberdinen artean mezuak eta dokumentuak partekatzea debekatuta dagoela, konfidentzialtasun arau hertsien isla. Bilerak iraun duen ia sei ordutan Internet erabiltzerik ez dut izan, beste seguritate neurri bat. Eraikinen barruko kafe-etxeetan eta perfekzio-

an diseinatutako aisialdirako espazioetan jendea dabil etengabe 25 ordutan. Irribarrez. “Truman Show” batean sentitu naiz. Zalantzarik gabe.

Erritmo frenetiko antzematen da leku guztietan. Horrek, guri (eta ziurrenik bertakoei ere) sortzen digun nekea baretzeko, kaleetako edozein izkinatan kafe-etxeak daude, pilak kargatu eta indarberritzeko. Ez naiz deskribapena handizkatzen ari, 100 metroko kale batean hamabost kafe-etxe kontatu ditut; europar kafe kulturaren imitazioa, amerikar kafe-etxeak edo korear bertsioak bata bestearen ondoan jarritz, eraikinetako lehenengo bost pisuetan, edozein lekutan.

Kapitalismoa nabarmena da. Saltoki gune modernoetan elkartzen da jendea, afaltzeko, iluntzeko kafea hartzeko eta erosketak egiteko. Etengabe. Dirua xahutuz.

Tradizioak deuseztatzea eta iragana ezabatzea kontzienteki egin duten pausua dela iruditzen zait (adibidez alboko japoniak tradizioa eta aurrerapenaren artean duen dikotomia interesgarri horretatik urrunduz). Iragana errotik ateratzea gupidagabe egin duten zerbait dela pentsatzen dut, baina ez dut damurik sentitzen

Aurrerapena, anbizioa eta lan on bat edukitzea gazteen DNAn daude, lan etikaren ezaugarriek gureekin talka egiten dute hainbeste arlotan

bertako jendearekin izan ditudan elkarrizketa mugatuetan. Aztarna guztiak aurrerapenarekin estaltzea lortu dute, aurrera begira egiten ari diren bidaia sutu horretan. Zertarako atzera begiratu. Etorkizuna da balio duena. Erreka handi batek bitan banatzen du hiria. Hegoaldean zeuden nekazari lurretan ez dago berdegune bakar bat.

Seuleko liburu denda handienera joan naiz libre neukan arratsaldean. Hiriaren handitasunaren erreflexu, solairu bakar batean zabaltzen den espazioan bezainbeste liburu ez dut sekula ikusi. Sail internazionalen, hiriaren historiari eta eragin sozialari buruzko idatziak bilatu ditu. Behin eta berriz elkarri egin dizkiogun galderen erantzunen bila: zein dira hemengo zoriontasunaren parametroak? Zoriontsu ote da hemen jendea? •

«Oraindik beharrak handiak dira, baina Etiopiakoa loratzen ari den gizarte bat da»

Hernanin kalean dabilela batek eta besteak agurtzen dute. Bertan jaio zen duela 76 urte, baina badira 50 baino gehiago Afrikan eta Afrikarako bizi dela. Lehenbizi Tanzanian hogeitun urte eman zituen lanean eta dagoeneko hogeitun baino gehiago daramatza Etiopia iparraldean, goseak gogor zigortzen duen Wukron (Tigray). Bertan Abba Malaku esaten diote, "Jainkoaren aingerua".

Urtean bizpahiru hilabete ematen ditu Hernani inguruan. Eta hala esan behar da, inguruan, ez baita erraza izaten bertan harrapatzea; Bartzelona, Paris, Bilbo... joan-etorri dezente izaten ditu hitzartuta Wukroz hitz egiteko eta haren alde lanean segitzeko. «Hemen nagoenean ere benetan kezkatzen naue-na Wukro da, hemengo kontuak baino askoz gehiago», aitortu du. Batek baino gehiagok esaten omen dio Euskal Herrira «indarrak hartzera» etortzen ote den. Garbi dauka ezetz, energia ematen dioten gauzak Wukron dauzkala, ez hemen. Aldrebes, hemengo bizimoduak maiz atsekabetu egiten du.

Zure lana ezagutzera Wukroa joandako guztiek aitortzen dute ukituta eta hunkituta bueltatu direla handik. Zer dauka Wukrok jendea era horretan harrapatzeko?

Penaz ikusten dut jendea gehien harritzen duena, gehien hunkitzen duena, bertakoen xalotasuna dela. Haurrak korrika etortzen zaizkizu, eskutik heltzen dizute, oso modu xumean, natural. Han ez diot inori entzun "ze ume pisua, joan dadila bere gurasoekin". Hona etortzen naitenean, esaterako, ez zait inor etortzen korrika besoetara, nirekin jolastera, nire ondoan egotera besterik gabe. Bestetik, han bizitza oso soila da, oso gutxi-ekin bizi dira. Eta hemendik jo-

andakoak berehala konturatzen dira hemen muntatu den guztia ez dela beharrezkoa zoriontsua izan eta gustura bizitzeko.

Wukroarrek kanpotarrak nola hartzen dituzten ere berezia da. Jendea oso abegitsua da, oso gozo hartzen du kanpokoak, baina ez zerbait lor dezakeelako edo dirua utziko duen turista bat delako, gustura sentiarazi nahi duelako baizik. Gauza txiki horiekin liluratuta geratzen da hemendik joaten dena.

Zu, aldiz, Hernanira bueltatzen zaren aldiro deserosoago sentitzen zara.

Gustura etortzen naiz nire familia hemen dagoelako, baina egia da hemengo bizimodua ez zaidala gustatzen. Dena eskura dago, gauza gehiegi; han ez dago gauza asko, baina oinarritzkoa han dago. Esaterako, asaldatuta nago argitara atera diren korrupzio kasuekin. Tira, korrupzioarekin baino, herria horren aurrean zein lokartuta dagoen ikusita. Hemen oso jende prestatua dago, ikasia eta profesionala. Arlo guztietan hain jende ona egonda, hain jakintsua eta profesionala, nola gerta daitezke horrelakoak? Harritu egiten naiz. Arazoa ez da korrupzioa egiten ari direla, herria hori onartzen ari dela baizik. Beste herrialde batzuetan ikusi dugu herria kalera atera dela protestara eta mugiarazi dutela beren herrialdeko egoera. Hemengo gizartea lokartuta ikusten dut. Soldatak gero eta txarragoak dira, lan baldintzak kaskarragoak, baina, hala ere, jendea beldurrez dago protesta egiteko eta kalera ateratzeko, daukaten gutxi hori galduko dutelakoan. Penagarria iruditzen zait agintariekin herritarrak egoera horretan jarri izana.

Eta gero agintari askok «demokrazia afrikarrak» aipatzen dituzte mespretxuz.

Eta asko haserretzen nau horrek, badutelako zer ikasi Afrikaz. Esaterako, Kataluniarekin sortu den harrabotsa izugarria iruditzen zait. 1991n Etiopian zegoen Gobernua agintetik bota zuten eta borroka horretan la-

gun izan zituzten eritrearrak. Gobernua lortu eta urtebetera, eritrearrek gogorarazi zieten beren independentziaren alde egitearren borrokatu zutela, hori zutela jomuga. Etiopiak erreferenduma egin zuen eta eritrearren %95 independentziaren alde agertu zen. Herriaren hitza errespetatu zen eta kito. Eta berdin Hegoaldeko Sudanekin geroago. Baina Espainian nola debekatu diezaioke herriari bere ahotsa demokraziaren izenean?

Hala ere, ez dirudi zilegi Afrikarekin konparatzea, ezta?

Zalantzarik gabe. Afrika Europaz askatzen hasi zen 60ko hamarkadan. Orduan, apenas zegoen unibertsitaterik Afrika osoan, hamar bat baino ez zeuden. Armada eta Polizia bazegoen, soberan eta nonahi. Eta zeuden politikariak Europako neurri-egindakoak ziren, eta Europari begira eta Europarentzat gobernatzen zutenak. Klase akademiko eta profesionalik gabe kontinente batek ezin du aurrera egin. Komunikabideen presentzia ere oso eskasa zen, eta hala segitzen du -biztanleen portzentaje oso txikiak irakurtzen du prentsa, esaterako-. Horregatik, ez zait justua iruditzen Europa eta Afrika konparatzea.

60ko hamarkadan Europaz askatu zen bezala, Afrika orain bere politikoez askatzen ari dela iruditzen zait, Europaren neurri diseinatutako politikari horiez esan nahi dut. Ni Etiopiar iritsi nintzenean, 1991. urtean, hiruzpalau unibertsitate zeuden eta orain 30etik gora daude. Bankuetan, bestelako erakundeetan eta politikarien bulegoetan dauden askok 35 urte baino gutxiago dauzkate. Lehen ez zegoen prestatutako jenderik, orain hasi da agertzen teknikoki, akademikoki eta profesionalki prestatutako jendea. Hori guztia kontuan hartuta, kasik gustu txarrekoa ere bada Europa eta Afrika konparatzea.

Nahiz eta gauza askotan Afrika aurretik doan.

Zalantzarik gabe. Orain hemen Podemos-Ahal Dugu alderdiaren inguruan eta gizarte zibila-

ANGEL OLARAN

MISIOLARIA AFRIKAN

Hernaniarra jaiotzez, afrikarra gorputz eta gogo. Tanzanian lehenbizi eta Etio-
pian orain, jendarte bat eraikitzen laguntzen ari da bere eskuekin. Berea sentitzen duen jendartea eta mundu ikuskera, beharrak eta balioak egiatakoak dituen.

amagoia.mujika@gaur8.info



Argazkiak: Jon URBE | ARGAZKI PRESS

ren garrantziaz asko hitz egi-
ten da. Etiopian, gizarte zibil
konstituzionala existitzen da.
Alkate baten bulegora joaten
zarenean han ikusten duzu hi-
riaren edo herriaren organigra-
ma paretan: lehen agintea gi-
zarte zibila da eta horren
azpian daude alkatea eta bote-
re judiziala. Alegia, bai alkate-
ak eta bai epaileak gizarte zibi-
laren aurrean erantzun behar
dute, horri zor dizkiote argibi-
deak. Eta gizarte zibil konstitu-
zional horretako kideek ez dute
dirurik kobratzen. Wukron,
esaterako, 220 pertsonako par-
lamentua dago. 250 biztanleko
ordezkari bat aukeratzen dute.
Ordezkariek ez dira hautagai
bezala aurkezten, inork ez du
bere buruaren aldeko kanpaina
egiten. Herritarrek aukeratzen
dute ordezkari bat dituen per-
sona. 220 ordezkari horietan
batzuk analfabetoak dira, bai-
na hori ez da arazoa, irizpide
kontua da. 220 ordezkari ho-

IBILBIDEA Hernanin
jaio zen, 1938. urtean.
Soldaduska amaitu
ondoren banku batean hasi
zen lanean, eta orduan
sentitu zuen Afrikarako
deia. Ordutik 50 urte joan
dira, eta Olaranek lan
handia egin du Tanzanian
eta Etiopian. Munduan bere
tokia Afrikan zegoela
pentsatu zuen jaioterria
agurtu zuenean, eta halaxe
dela ziur daki orain.



riek beren lehendakaria auke-
ratzen dute –lehendakaria eta
bere idazkaria dira soldata du-
ten bakarrak, lanaldi osoan ari-
tzen baitira– eta bost batzorde-
tan banatzen dira. Lauzpabost
hilerok, batzorde bakoitzak bere
arloan egin diren ekimen guz-
tien txosten ekonomiko zeha-
tza jasotzen du. Eta batzordeak
in situ ziurtatzen du txosten
ekonomikoa bat datorrela erre-
alitatearekin.

Hemengo errealtatetik urrun samar.

Bai. Parlamentu horretako kide-
ek maiz ez daukate ezta bizikle-
ta bat toki batetik bestera mugi-
tzeko eta bere lana egiteko.
Parlamentua hartzen duen erai-
kinean bulego gutxi batzuk dau-
de, mahai gutxi batzuk hiruzpa-
lau aulkirekin... eta bilkurak
areto zabal batean egiten dituz-
te. Gizarte zibil horren gastuak
izugarri txikiak dira, baina bere
egitekoak sekulako pisua dauka,

agintarien lana gainbegiratzeko
baitu etengabe. Duela gutxi al-
kate batek esaten zidanez, «nire
lana ondo dagoela esaten dida-
ten bakoitzean, gustura lo egi-
ten dut». Pentsa.

Baina, hala ere, ustelkeria egon badago.

Legea egina, tranpa egina. Ustel-
keria kartzelarekin zigortzen da,
eta berriz agintera bueltatzeko
debekuarekin. Duela gutxi kaze-
tari batzuei laguntzen egon nin-
tzen Wukroko kartzela batean.
Eta han ezagutu zituzten hiruz-
palau politiko ustel, preso dau-
denak. 1.000 euro lapurtzeaga-
tik hamabost urteko kartzela
zigorra zeukan horietako batek.
Kazetari espainolak erabat ha-
rrituta geratu ziren. Ustelkeria
oso gauza larria da. Herritarrek
konfiantza jarri dute zugar eta
zuk huts egin duzu. Benetan la-
rria da hori, aukeratu zaituzten
horiei huts egin diezulako. Hori
ezin du ahaztu agintariak.

Gatozen zuk egiten duzun lane- ra. 1993an iritsi zinen Wukro- ra nekazaritzarekin lotutako gai- tasunak lantzeko eskola bat martxan jartzeko ideiarekin. Zer topatu zenuen?

Oso panorama latza eta beltza.
Etiopia gerra luze batetik zeto-
rren, hamazazpi urtekoa. Aurre-
tik sistema feudal batetik zeto-
rren eta, gainera, Gobernuak
erabat bazterrean utzita zuen
iparralde. Wukron ez zegoen
ezer. Behar handia zegoen, hori
soberan eta toki guztietan. Adi-
bidez, aireportua edukiontzi bat
zen, barran mahai bat eta aulki
bat zituena. Bertan langile batek
begiratzeko zituen hegazkin
txartelak. Orain aireportu xume
bat dago, baina dagoeneko ba-
dauka bere kontrol dorrea eta
suhiltzaileak bertan daude, zer-
bait gertatzen bada ere. Eta
suhiltzaileen autoa ez badabil,
hegazkinek ez dute lur hartzen.
Duela hogeitaz hamar urte hori
pentsaezina zen. Adierazgarria da aire-

portuarena. Beste adibide bat: gure eskola jartzeko zortzi hektareako lursaila utzi ziguten. Bertan, zuhaitz bakarra zegoen. Egun, 20.000 landare eta zuhaitz baino gehiago daude.

Etiopia loratzen ari dela esan daiteke?

Bai, izugarri. Ni iritsi nintzenean beharrak oso larriak eta latzak ziren. Azpiegitura gutxi zeuden eta, gainera, horiek erabiltzeko gaitasuna zuten langileak falta ziren. Eskola eta unibertsitate oso gutxi zeuden eta hezkuntzarako atea itxita zuten haur eta gazte askok. Apenas zegoen dendarik, eta orain asko daude. Zerbitzuak hobetu egin dira. Ez zegoen apenas fabrikarik, industria ez zen existitzen, eta orain Wukron industria garatzen ari da. Azken hamar urtean gauzak aldatzen ari dira. Oraindik beharrak handiak dira, baina loratzen ari den gizarte bat da.

Azpiegiturak hobetu direla diozu.

Bai, esaterako, erietxeak ere asko hobetu dira. Nik ikusi izan ditut usoak erietxean gaixoaren ohearen gainean. Ez zegoen leihorik, zuloak bazeuden paretan, baina kristalik gabe. Ez zegoen babesik; ez zegoen zementurik, dena lurra zen, eta ez zegoen sabairik, uralitako teilatu bat besterik ez. Osasun eta garbitasun baldintzak oso eskasak ziren. Etxe gutxitan zegoen komuna. Normalean, erabiltzen ez zen lursail bat erabiltzen zuten beren beharretarako, eta hori gaixotasunak kutsatzeko toki arriskutsua bihurtzen zen. Gauzak asko hobetu dira, eta Etiopia hegoaldean ere hala dela esaten dute. Etxeak eraikitzen ari dira. Baina ez da Euskal Herrian bezala. Hemen eraikitzaile batek etxe multzo bat eraikitzen du eta gero saldu egin behar ditu. Wukron, bakoitzak bere etxea eraikitzen du. Daukazun diruaren arabera, herriko igeltseroari eskatzen diozu eraikitzen joateko, faseka. Zimenduak jartzeko dirua daukazula? Ba zimenduak jarri eta gelditu. Eta eraikitzeko baldintzak Gobernuak jartzen ditu, normalean berak emandako lursailak izaten baitira.



Eta, gosea?

Ni Wukrona iritsi nintzenean haur asko zeuden burua tente eutsi ezin zutenak. Gose kronikoa zegoen, oso latza. Orain, nahiz eta badauden, sabela puztuta duten haurrak gero eta gutxiago ikusten dira. Orain dagoena «gose pasiboa» da. Gaizki elikatutako haurraren garapena ez da ona. Alegia, lau urteko haur batek itxura osasuntsua izan dezake, korrika eta saltoka ibili, jolastu, baina bere buruaren garapena bi urteko haur batenaren izan. Malnutrizioaren ondorioak dira. Garuna garatzeko urte horietan zailtasun horiek badaude, horren arrastoa bizitza guztirako izaten da. Malnutrizioa da zalantzarik gabe Wukron

«Lehen gose kronikoa zegoen, sabela puztuta eta ia jateko gaitasunik ez zuten hurrek. Orain ‘gose pasiboa’ dago; itxuraz osasuntsu daude haurrak baina malnutrizioaren ondorioz garunaren garapen eskasa dute»

dagoen arazo larriena, eta Gobernua indar handia jartzen ari da lanpostuak sortzen, bereziki emakumeentzat. Frogatuta dago emakumeek lana izateak mende handia dakarrela bere ingurune sozialean.

Zuek baduzue malnutrizioaren kontrako programa bat.

Bai, Gobernuarekin elkarlanean. Hiru hilabetez 300 haur hartzen ditu gure programak. Lehen, jaten ematen genien, baina amentzat arazoa zen egunero gure jangelara gerturatu behar izatea. Orain, hainbat elkarteren laguntzaz, nutrizio balio oso onak dituen papilla bat egiten dugu eta osasun zentro desberdinetan banatzen dugu. Eta bertako medikuak eta langileak ardurtzen dira haur horien jarraipena egiteaz. Hartara, programa horretan parte hartzen duten haurrei hiru hilabetez papilla hori ziurtatzen diegu. Hiru hilabete eta bost urte arteko haurrak dira, bere pisuaren %80tik behera daudenak. Papilla hori emaitza onak ematen ari da, baina tristena da beti daudela 300 haur baino gehiago programan parte hartzeko zain.

Prostituzioan aritzen diren emakumeei beste aukera bat emateko programa ere baduzue.

Emakume horiek zailtasun handiak dituzte mikrokredituak lortzeko, ez baitute abalik izaten. Guk ez ditugu emakume horiek aukeratzen. Wukron bada elkarre bat, emakumeen egoera oso ondo ezagutzen duena, eta haien bidez iristen zaizkigu eskaerak. Mikrokredituak lortzen laguntzen diegu, gehienak 200-300 eurokoak, eta beren bizitza goitik behera aldatzen da horiei esker. Bai emakume horiena eta bai beren familia osoarena ere. Wukron emakume askok ez dauka lan mundura sartzeko modurik eta asko izan dira beren gorputzarekin negoziatu behar izan dutenak aurrera egiteko. Asko amak dira, bikoterik gabe, eta maiz haurra lokartzeko zain egon behar izaten dute bezeroa etxean hartzeko. Garbi ikusi dugu emakume horien egoera ho-

betuz, bere inguruko guztiena asko hobetzen dela. Bide hori oso ona da.

Nekazaritzan aritzeko teknikak ere hobetzen ari zarete.

Gazteekin ubideak eraikitzen ari gara. Dagoeneko asko daude eginak eta horrek asko hobetzen ditu uztak, ura aurrezten da eta lursail handiagoak landu daitezke. Bestetik, Gobernua gazteen eskura jartzen ari da erlauntzak eta posible den kasuetan, baita lursailak ere. Hartara, diru pixka bat ateratzeko modua eskaintzen die. Hori nekazaritza gunetan ematen da batez ere. Hirietan gazte asko dago lanik gabe. Asko unibertsitarioak dira, ikasketak amaitu eta lana topatu ezinean dabiltzanak. Hartara, horiei kaleak asfaltatzen erakutsi zaie, eta Wukroko kaleak asfaltatzen lan egiten dute. Lan horretan ari diren bitartean diru pixka bat ematen zaie, jan ahal izateko. Eta behin amaituta, mikrokreditu baten %20 ziurtatzeko adina diru ematen zaie, beren bidea hasteko modua izan dezaten. Helburua da gazte horiek lanpostuak sortzea. Proiektu txikiak dira, baina eragin handia dute ekonomikoki, sozialki eta baita ingurunean ere.

Eta herritarren aldarlean, ezta?

Bai, baina wukroarrek ez daukate halako tristura eta garraztasunik. Euskal Herrian jendea kezkatuta ikusten dut; lana ez duenak ez duelako, eta duenak galtzeko beldurra duelako. Wukron oso gutxi behar dute bizitzeko, eta umorez eta patxadaz hartzen dituzte egoerak, nahiz eta maiz larriak diren. 60 zentimorekin egun osoan jan dezake pertsona batek; etxeetan ez dago ez mahairik, ez aulkirik, ez platerik. Lurrean eseri eta ontzitik bertatik jaten dute denek eskuekin. Bonbilla bakarra dago etxe osoan, gela berdinean lo egiten dute lauzpabost lagunek... Gastuak minimoak dira, eta txarra da maiz gutxi horiek ziurtatzera ere ez direla iristen. Baina orduan ere ez daukate antsietaterik eta depresiorik. Bizitzaren ikuskera oso desberdina da.



IKUSMIRA

BLAITU ARTE BUSTI NAHIAN

Euririk ez du ari. Blaitu arte busti nahi dugu, baina. Eskutik oratu eta giza amarauna sortu gura dugu. Erlojuaren orratzei eutsi, eta gure ordua ere badela esan nahi diogu munduari. Askatasun egarria laukitxoetan markatu nahi dugu. Besteen antzera, etorkizuna hautatu, ez besterik. Inurri lanean abilak gara, iraganeko ekarpena horren testigu. Durango eta Iruñea elkartzen duen ehun zangoa izan gaitezke, bai eta bandera edo boto-kutxa ere. Harean zein errepidean utzi nahi dugu aztarna, herri baten arnasa. Itxaropen izpiek agudotzen duten hatsa.

oihana.llorente@gaur8.info





Aire libreko baratzez ari bagara, urte sasoi honetan ez da askorik egiteko landaketei dagokionez. Baldintza klimatikoek markatzen dute muga.
Haritz MAYORA



Zer berri ortu ekologikoetan?

Baratzezaintza-ren munduan barneratu den pertsona orok noizbait galdetu izan dio bere buruari, «zer landatu dezaket hilabete honetan?, noiz erein ditzaket berakatzak?». Galdera hauentzako erantzun zehatzik ez dago, lur bakoitzak, toki bakoitzak dauzkalako bere berezitasunak. Udalerri berdinean ere, baldintzak eta lurrak aldatzen dira, eta ortugile bakoitzak bere lan egiteko era moldatu behar du bere errealtatera.

Egoera horren jakitun, hurrengo lerrootan informazio orokorra emateko saiakera egingo dugu, datozen hilabeteetan euskal baratzeetan to-

patuko dugunaren eta egin daitezkeen laboreen berri eman asmoz. Azalpen hauek pertsona adituek eman dizkigute: esperientzia luzeko ortugile ekologikoek, alegia.

ZER DAGO BARATZEETAN SASOI HONETAN?

Udazkenaren azken hilabetean sartzear gaudelarik, eguzkiak bere izpirik onenak bota ditu jada. Hortaz, fruitu-laboreak (tomatea, piperra, kuia-txoa, leka, berenjena... heldutasunera iristeko eguzkia behar duten jakiak, alegia) bukatuta edo, negutegia daukaten baratzeetan, bukatzearen daude. Hala ere, aire libreko ortuak oraindik ekoizpen batean egoteko moduan badaude: uztaila-abuztuan negura-

ko landaketa egokiro egin bada, momentu honetan mota guztietako azak, azalorea, brokolia, porrua, eskarola, espinaka, zerba, azenarioa, erremolatxa, errefautxoa, borraja, errukula, apioa, kardua eta bestelako sustrai zein hosto-laboreak topatuko ditugu.

Udara bukaeran jaso eta gordetako laboreak ere eskura dauzkagu: indaba, kalabaza, patata, kipula, sagarra, kiwia... Hauentzat, biltegiatzea baldintza egokietan egitean dago gakoa: oro har, gordetzeko diren elikagai freskoak eguzkitik apartera dagoen leku lehor eta aireztatuan jarri behar dira. Kalabazak 15-17 graduren bueltan ederto daude, baita hezetasun apur batekin ere. Beste aldetik, hotzari eutsiko

ez dioten ortuariak eta fruta batzea komeni da, lehengo izozteak iritsi aurretik.

AZARO-ABENDUKO LABOREAK BARATZEAN

Aire libreko baratze batez ari bagara, urtearen sasoi honetan ez dago gauza handirik egiterik, landaketei dagokionez behintzat. Baldintza klimatikoek markatzen dute muga: irailaren lehenengo hamabostaldetik aurrera, aire librean egindako landaketak garapen optimora ez iristeko aukerak handiak dira: azarotik aurrera, landareen hazkunde asko geldotuko da. Edonola ere, badira beste lan batzuk ahaztu ezin daitezkeenak: ortuaren bazterrak garbitu, aurreko landaketatik gera-

NEKAZARITZA ETA ELIKADURA EKOLOGIKOA



tu diren landare zaharrak batu, egurra estalpean sartu... Landa-
ketak egiteaz, estalpean ez ba-
da bederen, ahaztu.

Udaberriari begira, baserritar
batzuek labore arin bat egiten
dute, lurra zati handitan apur-
tuz, neguko hotzak mokilak bi-
rrindu ditzan. Beste baserritar
batzuek, aldiz, hurrengo uda-
berrira arte itxarotea nahiago
dute.

Fruta arbolei dagokionez,
hosto guztiak jausi direnean,
kimaketa egiteko moduan gau-
de. Zuhaitzak berreskuratu du
ahal zuen guztia hostoetatik;
gainera, adarren egitura garbi
ikusten da eta horrek kimaketa
lana errazten du. Garrantzitsua
da lan hau ilbeheran egitea,
zuhaitzari egiten zaion kaltea
ahalik eta txikiena izan dadin.
Ez dezagun ahaztu zuhaitzari
zauriak egiten ari garela. Gai-
nera, erretiratzen zaizkion ada-
rrak, azken finean, zuhaitzak
galtzen dituen erreserbak dira,
horregatik, ez da komeni urte-
ro egurraren heren bat baino

gehiago kimatzea. Gaixotasu-
nen zabaltzea ekiditeko, zuhai-
tzetik zuhaitzera guraizeak al-
koholarekin garbitzea aukera
ona da.

EREINTZAK ETA LANDAKETAK AIRE LIBREAN

Porru berria (apirila inguruan
landatzeko eta ekainean batze-
ko); ilarra, baba beltza, tipuli-
na, baratxuri freskoa. Araban,
lehorrerako baratxuria eta ba-
ratxuri freskoa, baba beltza, ila-
rra, neguko letxugak eta espi-
naka. Landaketei dagokionez,
kantauriar isurialdean tipulina
da (abendua bukaera alde-
an) aldatzea merezi duen labo-
re bakarra. Araban, aldiz, bat
ere ez.

Abenduan ere, hazia atera-
tzeko gorde diren kipulak lan-
datzen dira bazterren batean
(aire librean landatu daitezke,
edota negutegian, babestuago
egoteko). Kipula hauek udabe-
rrian loratuko dira, eta hazia
prest izango dute udararen ha-
sieran.

EREINTZAK ETA LANDAKETAK NEGUTEGIAN

Negutegia izanda, letxuga eta
kukulu tanda txikiak erein eta
landatu daitezke hilean behin.
Berdin espinakarekin. Errukula
eta errefautxoak zuzenean
erein daitezke lurrian, bara-
txuri freskoa eta lehertzeko
baratxuria bezala (kantauriar
isurialdean, lehorrerako bara-
txuriak arazoak dauzka aire li-
brean, baina ondo garatzen da
babespean). Aire librean gerta-
tzen den eran, posible da negu-
tegia baba beltza edota ilarak
ereitea. Abenduaren bigarren
hamabostalditik aurrera, tipuli-
nak landatu daitezke. Informa-
zioa zabaltzeko, ENEEK eta Bio-
lur Gipuzkoak prestatutako
“Ortu ekologikoaren plangintza
koadroa” eska dezakezu bi era-
kunde hauetan.

ENEK
Euskadiko Nekazaritza eta
Elikadura Ekologikoaren
Kontseilua

Memoriak ez du preskripziorik

Oihane
Larretxea

Hutsik egin ga-
be, egunero
oroitzen dut
nire amona

zena, Lutxi. Entziklopedia zen;
hura eta besteaz izugarri irakatsi
zidan, eta gutxi bezala maitatu
ninduen. Aitzitik, azkenaldian be-
reziki gogoratzen naiz berekin,
frankismoan gizateriaren aurka-
ko krimenak egin zituzten ardu-
radunak hizpide diren egunotan,
zehazki.

Gerraren alaba zen. Oso ume
zen krudelkeriak eztanda egin
zuenean, baina ihes egiteko bere
amarekin, Axun birramonarekin,
trenetan egindako bidaia haiek,
Donostiatik Bartzelonara lehenda-
bizi, Estatu frantsesera ondoren...
ez zituen inoiz ahaztu, ezta Fran-
coren eskutik ondoren etorri ziren
25 urte gordinak. Gerrak, zauriak
eta diktadura tarteko, ama eta ala-
ba ez ziren sekula banandu.

Berandu, oso berandu bada
ere, Justizia, letra nagusiz, Argen-
tinatik etor daitekeela dirudi.
Justizia eskatzen duten senideak
ikustean, gure birramonaren
azal ximurraz oroitzen naiz, itsu
gelditu zitzaizkion begi urdin
haiez... Akaso ikusi zituen anker-
keriek lausotu zioten bista. «Guz-
tiaren errua Martin Villak dau-
ka», esan ohi zuen.

Axun eta Lutxi bezalako ema-
kume –nahiz gizon– kement-
suek pasadizo hauek ahaztu ez
zituzten moduan, geuri dagoki-
gu euren testigantzak berresku-
ratzea eta bizirik zeudenean
izan ez zuten errekonozimendua
eta egia ematea. Ez du Madrilek
egingo. Mari Serivini epailea tar-
teko, Interpolek hemeretzi buru-
zagi frankisten aurka eskatutako
«berehalako atxilotzea» ez du
ahalbidetuko, hilketen preskrip-
zioak eta 1977ko Amnistiaren Le-
gea argudiatuta.

Francoren itzala luzea da oso.
«Ez naiz hilda dagoenik ere fio»,
zioen amonak. Nik barre egiten
nuen, baina akaso ez zitzaion
arrazoirik falta. •



Endika Gutierrez Red Bull Nazioarteko Oilar Batailako finalean, ikusleak oihuka dituela. RED BULL

infraganti

ENDIKA GUTIERREZ

Taularen gainera igo eta arerioei hitz ukabilkadak ematen da maisu. Red Bull Nazioarteko Oilar Batailan guztien gainetik jarri eta titulua lortu du Endika Gutierrez «Invert» barakaldarrak. Ametsa, ia obsesio, izan du Endikak lehia honetako gailurrera iristea, eta, behin tontorra zapalduta, kaleratuko duen diskoan jarri nahi ditu indarra guztiak orain.

Hitzordua Bilbo-ko Abandoko tren geltokia-
ren atean egin
dugu, eta, jen-
dearen joan-
etorri horretan, musika entzu-
nez, txaketaren txanoa jarrita...
iritsi da, lasai-lasai. Oharkabean
igaro da ordu horretan kalean
dabiltzan herritarren artean,
etxean baino askoz ezagunagoa

delako etxetik kanpo. Rap
munduan handienetakoa den
saria irabazi berri du Endika
Gutierrez, *Invert* barakalda-
rrak: Red Bull Nazioarteko Oi-
lar Batailako finala. Horrela,
azken zazpi urteetan buruan
izan duen helburua lortu du,
«ametsa».

Ahotsa ez zaio oraindik ere
onera etorri eta lehiaketaren
biharamunean sentitutako

gorputz-giharretako mina
oraindik ere sentitzen duela ai-
tortu digu. «Presio handiko
uneak dira lehiaketan bizitzen
dituzunak eta horrek pasara
handia ematen du», onartu du.

Txapelketa mota honetan bi-
kotea igotzen dira taularen
gainera lehiakideak, eta, nor-
bere burua goratzeaz gain, on-
dokoarena ahalik eta gehien
makurrarazten saiatzen dira:

«Gure artean oso giro ona
egon da [Kolonbia, Mexiko,
Txile, Peru eta Panamako per-
sona bana eta Argentinako bi
izan ditu arerio finalean], la-
gun ere egin gara, baina taula-
ren gainera igotzerakoan lehia-
kideak gara», nabarmendu du.
«Jendeari arerioaren hutsak
nabarmentzea gustatzen zaio,
baina ez da hori teknika baka-
rra; hori bai, haren gainetik ge-
ratu behar duzu», jarraitu du.
Boxeo borrokaldi baten pareko
da azken batean, ukabilkadak
hitzez ematen badituzte ere.
«Ni agertokira igotzean handi-
tu egiten naiz, boxeolariak egi-
ten duten moduan».

Inprobisazioan lehiakideak
erakusten duen abiadura, bai-
na, batez ere, irtenaldi edo
puntu umoretsuak dira epai-
mahaiak gehien kontuan har-
tzen dituenak. Endika Gutie-
rrez beraren esanetan, «ikuslea
ezustean hartzen duen hitz-jo-
ko argia», alegia.

Zalantzarik gabe, horretara-
ko baliabideak izan baditu ba-
rakaldarrak, «espontanea eta

irekia» izateaz gain, «hiztuna
eta mugitua» ere badelako.
Agertokiaren gainean ez ezik,
handik behera jaitsitakoan ere
inprobisatzeko gaitasuna iza-
tea garrantzitsua dela uste du.
«Nire lanean bertan ere saia-
tzen naiz inprobisatzen egune-
rokoan [gimnasio batean egi-
ten du lan]. Komenigarria dela
uste dut», azaldu du.

Inprobisazioa, ordea, landu
egin behar da, eta bide horre-
tan lan handia egin du rap mu-
sikara bertaratu eta sekulako
tiradizoa sentitu zuenetik.
«Gaztetxoa zarenean normale-
an musika batekin identifika-
tzen duzu zure burua; nik ez
nuen halakorik topatu. Onartu
behar dut, estetikak erakarri
ninduen lehenik rap mundura:
galtza handiek, txapelek... Mu-
sikarena ondoren heldu zen.
Doinu haiek, baina, harrapatu
egin ninduten azkenerako eta
nire burua definitzen lagundu
zidaten», gogoratu du. «Egun
ez nuke nire burua musika
mota hau gabe azaltzen asma-
tuko», gaineratu du.

Egunerokoa baliatzen du entrenamendu gisa, begiztatzen duen horri punta ateratzen edo errima bat jartzen saiatzen da-eta. «Skater batek kalean doala erpin eta koskak ikusi eta haien gainean irrist egiten saiatzen da; gauza bera egiten dut nik ikusten ditudan errealtate desberdinekin». Azken batean, hitzak, hitz-jokoak... osatzen ditu buruan gordetzen joaten da. Erritmoaren gainean dantza egiten, «flow deitzen den hori» barneratzen ere ikasi behar izan du Endika Gutierrezek eta hori denborarekin eta aritzearekin lortu duela aipatu du.

Entsegu horietan afizio bera duen lagun taldeak asko laguntzen dio. «Asteburuetan maiz hori izaten da gure plana, elkar-tu, zerbeza batzuk erosi eta rapeatzen aritzea», kontatu du. Azken hilabeteotan ohi baino gehiago elkartu behar izan du haiekin, bete-betean aritu baita lehiaketa prestatzen. Sariketa bera, ordea, aspaldi irudikatutako ametsa du. «Orain zazpi urte hasi nintzen lehiaketotan parte hartzen eta orduz geroztik buruan izan dudana nahia da lehiaketa hau irabaztea», aitortu du. «Obsesio» hitza ere baliatu du sariketa honen bueltan sortu zitzaion sentimendua deskribatzeko. Kostatu zaio, eta, behin gailurrera iritsita, lasai dagoela aitortu du: «Ez dut gehiago lehiatuko, argi daukat; inprobisatzen jarraituko dut, noski, baina lehiaketak utzi egingo ditut. Lortu dut nahi nuena eta kito!». Faltan botako duela aitortu du, baina, «gustura nago nire buruari helburu hori jarri eta bete dudalako».

Horrek ez du musikatik alden-duko, egunotan bertan buru-belarri baitabil Endika Gutierrez osatu duen diskoa sareratzen. «Urtebete baino gehiago daramat diskoaren lanketan», argitu du. Idatzita zituen letra batzuk eta buruan beste batzuk. Uda honetan halabeharrez hartu behar izan zuen atsedena baliatu du diskoa borobiltzeko. «Etxean bertan estudio bat egingo daukat eta bertan aritu naiz grabaketa lanetan», zehaztu du. Aurreko lanekin alderatuta aldaketak egin dituela onartu du: «Dene-

«Onartu behar dut, estetikak erakarri ninduen lehenik rap mundura eta musikak ondoren. Doinu haiek, baina, harrapatu egin ninduten eta nire burua definitzen lagundu zidaten»

«Boxeo borrokaldi bat da azken batean, ukabilkadak hitzekin ematen baditugu ere. Ni agertokira igotzean handitu egiten naiz, boxeolariak egiten duten moduan»

tik sartu dut, lehiaketako rapa landu dut, baina bestelakoak ere bai». «Abran Paso» izenaz bataiatu du lana eta datorren astean igoko du bere jarraitzaile guztiek entzun dezaten. Argi zuen, gertatutako gertatuta ere, nazio-arteko lehiaketa jokaturakoan argitaratu nahi zuen. «Ea bultzada emateko balio duen!», azaldu du irribarretsu.

Musikaz eta idazten duenaz bizitzea gustatuko litzaiokeela ez du ukatzen, baina hori, tamalez, ez dagoela bere esku azaldu du. Rapak Latinoamerikan duen indarrari inbidiaz begiratzen dio. «Hemen ere indarra izan badu, baina diru gutxi mugitzen da arlo honetan», zehaztu du. Txapelketako finalean lehiakide izan zituen pertsona guztiak musikaz bizi direla aipatu du, baina «hemen ezinezkoa da». Ez du etsitzen, ordea. Bere ustez rapak berriz ere indarra hartuko du, eta, «bide horretan nire eredu baliagarria bada, primeran!».

Aspertzeko betarik gabe, euskaraz hitz egiten ikastea da gaur egun duen beste erronketako bat. Hori lortzeko egunero joaten da euskaltegira. Noizko euskaraz rapeatzen? «Idatzi izan dut rap abasterik euskaraz, bai-

na, egia esan, kosta egiten zait nire burua euskaraz rapeatzen ikustea. Euskaldun berria naiz ni eta rapean aritzeko hizkuntza izugarri menderatu behar da; hori bai, idatzi izan dut euskaraz eta euskaltegiko irakasleak ere zuzendu izan dit testuren bat!», kontatu du barrez.

Raparen bitartez gaztetxoei laguntzea ere buruan darabil. Abokatu talde batekin egiten du lan musika honen bitartez emakumeen aurkako indarkeria edota *bulling*-a bezalako gaiak lantzeko. «Eskoletara joaten gara eta rapa bide hartuta ikasleei gai horiek modu didaktikoan irisarazten dizkiegu. Rap gazteengana iristeko bide erakargarria da, izan ere», aipatu du, musika honi dion miresmena nabarmenduta. •

Maidier EIZMENDI



Bikotekako erronka guztiak irabazi zituen Endika Gutierrezek. RED BULL

SARE@N

EUROPA

Hauek dira aste honetan Europako nabigatzaileen artean arreta erakarri duten gaietako batzuk:

> Iguala

«Mila esker, nekatu naiz da-goeneko». Baxu-baxu entzun ahal izan ziren hitz horiekin amaitu zuen Mexikoko fiskal nagusi Jesus Murillo Karamek Igualako 43 ikasleen heriotza baieztatu zuen agerraldia. Eta hitz horiekin osatutako traola, #yamecansé, trending topic da Mexikoko sare soziale-tan. Igualako gertakariak eragindako amorrua azala-razteko baliatu dute milaka herritarrek traola, eta eurak indarkeria eta inpunitateare-kin zeharo nekatuta daudela nabarmendu dute.

> India

Gutxienez 11 emakume hil egin dira tronpak lotzeko eba-kuntza baten ondorioz. India-ko Chhattisgarh estatuan jazo da gertakaria eta beste 50 emakume ere ospitalera era-man behar izan dituzte ema-kumeak antzutzeko kanpaina masiboaren ondoren, horie-tatik hogeiren bat egoera oso larrian gainera. Ebakuntza guztiak mediku bakar batek egin zituen sei ordutan. Ze-hazki 83 emakumeri egin zien tronpen lotura. Egileak zigor ditzatela eskatu dute egindako protestetan.

> Ikea

Shangaiko 12 urteko mutiko batek sei egun eman ditu Ikea batean ezkutatuta, Xuhuiko barrutian. Goiz batean eskola-tik etxera bidali zuten buel-tan, matematikako etxeko la-nak egin gabe joan zelako. Behin etxean amak errieta egin zion eta mutikoak, hase-rre, etxetik alde egin zuen, poltsikoan txanpon gutxi ba-tzuk hartuta. Ikean ezkutatu zen, bertan ahal zuena janez. Bere amak esan duenez, gus-tukoa du Ikeara joatea. Oso ahul topatu dute mutikoa, go-seak jota.

> Plastikoa

Sandra Krautwaschl eta bere familiak, ekologiarekin estu lotuta dauden austriarrak, apustu berezia egin dute be-ren bizitzan: plastikorik gabe bizitzea. Hartara, etxetik atera dituzte plastikozkoak diren gauza guztiak; jostailuak, su-kaldeko tresneria, elektrograi-luak... baita hortzak garbitzeko eskuilak ere. Orain egurrezko eskuilak erabiltzen dituzte. Sandrak “Plastikotik libre gu-nea” liburua idatzi du eta bere aholku propioak praktikara eraman ditu, plastikoa bere bi-zitzatik baztertuz.

> Arrautza

Aste honen hasieran Mosku arrautza ustelen usainez es-natu da. Ordu batzuetan moskutarrek usain sarkor eta desatsegina zuen lainoa izan dute gainean, dirudienez, sulfuro hidrogeno ihes baten ondorioz. Moskuko gun e ba-tzuetan, gainera, lainoak as-ko zaildu du ikusgaitasuna eta arriskua sortu du. Hirita-rren esanean, arrautza uste-len usaina etxeetaraino sartu da, nahiz eta leihoak itxita izan. Hipotesi nagusia Mos-kuko petrolio instalazioari begira jarri da.



GUREGIPUZKOA.NET

ITXAROTEN IKASI ETA ITXAROTEAZ BERAZ GOZATU

Hatzek pantailei agintzen dieten garaian bizi ga-ra. Dena azkar, dena orain. Mundua gure hatzen puntetan dantzan. Akaso laster ahaztu egingo zaigu itxarotea zer den. Itxaron, kometaren sokak korapilatu egin dira-eta. Itxaron, haizea baretu egin da-eta. Itxaron, orain itsasoa gehiegi harrotu da-eta. Itxaron, une perfektua iritsi arte. Eta iris-ten denean, are ederragoa da itxaron egin behar izan duzulako. Hala zen 1967. urtean -argazkia ordukoa da- eta hala beharko luke orain. Berriz ikasi beharko genuke itxaroten, eta itxaroteaz beraz gozatzen. **Paco MARI. MARIN FUNTSA. KUTXA FOTOTEKA**

Victoria Fernandez, Edurne Larraza, Montse Maritxalar, Txelo Ruiz
EHUko Informatika Fakultateko e-makumeak taldeko kideak



Itzaletik azalera: Emakume aitzindariak informatikan

Informatikaren hastapenak matematika eta ingeniari-tza bezalako zientzia arloetan kokatu behar dira. Ingeniari-tza gizonezkoen jardueratzat hartzen den arren, historiari begiratu gero agerian geratzen dira emakumeek egindako ekarpen asko. Konputazioaren historia hardwarean fokatu izanak ekarri du informatikaren garapenean emakume askok emandako fruituak itzalean geratzea, batez ere, hastapenetako lehenengo makinak aipatzen ditugunean. Izan ere, konputazioaren alderdi mekanikoak (hardwarea, alegia), oro har, ingeniari-ek landu ohi dituzte, eta historikoki oso emakume gutxi sartu dira ingeniari-tzetan, baita gaur egun ere. Baina softwarearen garapenean historiari erreparatu gero, emakume asko izan dira protagonista. Ordenagailuen aplikazio praktikoetan ere ohikoa izan da emakumearen presentzia. Omenaldi gisa, informatikaren garapenean zehar ekarpenak egin dituzten emakumei eskaini nahian, merezi zuten aintzatespena jaso ez zutelako, hona hemen istorio labur batzuk, estereotipoak gainditzeko lagungarriak izan daitezkeelakoan.

ADA LOVELACE (1815-1852)

Matematiketan nabarmendu zen, haren amaren irakaspenei esker. 17 urte zituen, lanean hasi zen «makina diferentziala» diseinatzen Charles Babbage-rekin. Ada Lovelacek idatzitako ohar batzuetan makina analitiko baten ideia azaltzen zuen, konputazio makina programagarri bat eraikitze oinarri orokorrak ematen zituela. Hain zuzen ere, honengatik esaten da Adari zor zaiola konputazio makinak programatzeko ideia. Haren ondorengo idazkietan, programazioaren funtsezko terminoak sortu eta definitu egin zituen, hala nola “begizta” eta “azpierrutina”. Bere ekarpen garrantzitsuengatik munduko lehenengo programatzailetzat hartua izan da. Geroago, haren omenez, ADA izena jarri zioten programazio lengoaiari. Horrez gain, zientzian, teknologian, ingeniari-tzan eta matematikan... ema-

kumeek egindako ekarpenak goraipatzeko asmoz, 2013. urtetik aurrera Ada Lovelace Nazioarteko Eguna ospatzen da.

ENIAC (1946) ETA UNIVAC (1951), KONPUTAGAILUETAKO EMAKUMEAK


Ordenagailuak sortu aurretik ere, emakumeek kalkulu matematikoarekin harremana izan zuten. Izan ere, hainbat arlotan garatu zituzten horretarako beharrezko gaitasunak, hala nola, astronomian, hegazkintzan, nabigazioan, ikerketan, eta abar luze batean.

Baina, lehenengo konputagailu elektronikotzat ezagutzen den ENIAC ordenagailuaren lehenengo programatzaileak sei emakumezko izan baziren ere, makina sortu zuten gizonezko ingeniariak izan dira ezagunak historian zehar. Programatzaileak Kathleen McNulty Mauchly Antonelli (1921-2006), Jean Jennings Bartik (1924-2011), Frances Betty Snyder Holberton (1917-2001), Marlyn Wescoff Meltzer (1923-2002), Frances Bilas Spence (1922) eta Ruth Lichterman Teitelbaum (1924-

1986) izan ziren. Zorionez, azken markadetan emakume horien ekarpena berreskuratzen joan da. Garai hartan «bigarren mailako» profesional gisa kontratatatuak izan ziren, agian genero kontu batengatik, edo lan kostuak gutxitzeko. Edozein kasutan, emakume programatzaile haiek nabarmentzen ziren matematikari iaioak eta logikan adituak izateagatik.

Gauza bera gertatu zen ondorengo beste garapen batzuekin, hala nola UNIVAC ordenagailuarekin (lan praktikoak egiteko eta merkataritzarako sortutako lehenengo ordenagailua). Kasu honetan, Betty Holberton eta Adele Mildred Koss aritu ziren.

Emakumezkoen ekarpenak asko dira, hainbat arlotan, diziplina artekoak... Aipatutakoak ez dira bakarrak, hor daude ere Edit Clarke (1883-1959), Grace Murray (1906-1992), Telma Estrin (1924), Evelyn Boyd Granville (1924), Rózsa Peter (1905-1977), Jeanne Summet (1928), eta abar luze bat, gaurko egunetara ailegatu arte. •



ENIAC lehenengo konputagailu elektronikoa programatu zuten emakumeak. U. S. ARMY PHOTO

arkitektura / hezkuntza / teknologia

3 BEGIRADA:

Bere hilketaren 25. urteurrenean

JOSU MUGURUZA


Balek hondatu ez zuten ametsa

Iñaki Altunak eta Mikel Zubimendik idatzia

Bi edizio:
euskaraz eta gazteleraz
Erreserbatu zurea!

Auzoko militante,
Iparraldean errefuxiatu,
Espainian preso,
astelehenetako J. Iratzar
kronikari, politikari
abertzale... horiek guztiak
ageri dira biografia
pertsonal eta
politiko honetan.

Lander Iruinek eta Markel
Andiak eginiko "Zohardia"
dokumentalaren
DVDa ere badu



GARArekin

hilaren 22an (larunbata) eta 23an (igandea)

HARPIDEDUNENTZAKO ESKAINTZA BEREZIA: **9,95** euro

Erreserbatu hilaren 16a, asteartea, 15.00ak baino lehen egin, **94 424 55 56** telefonoz edo **publiblibo@gara.net** helbidean. Bideketa gasturik gabe igoniko da.

11,95€
soilik

